

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3546

104/2016 DEKRETUA, uztailaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarrizko Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzen dituena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30 eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera (hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak artikulua bakarreko bosgarren zenbakiaren bidez aldatua), lanbide-heziketako tituluen curriculumak garatuko dute hezkuntza-arloko administrazioek, oinarrizko curriculumetik abiatuta.

Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren 1. artikuluko b letrak I.etik XIV.era bitarteko eranskinetan adierazi diren Oinarrizko Lanbide Heziketako tituluak bakoitzaren alderdi hauek zehazten ditu: oinarrizko curriculumak; prestakuntza-testuinguruaren oinarrizko parametroak; lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna, haiek egiaztatu edo baliozkotu behar izanez gero; eta, konkurrentzia lehiakorra egonez gero, tituluaren bidez erdi-mailako zer heziketa-ziklori aplikatu dakizkiokeen onarpen-irizpide lehenetsiak (127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituena eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena).

Ondoren, maiatzaren 16ko 356/2014 Errege Dekretuak Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen ditu 2. artikuluan, eta haien zehaztapenak I.etik VII.era bitarteko eranskinetan jaso dira (356/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen dituena).

Era berean, abuztuaren 28ko 774/2015 Errege Dekretuak Oinarrizko Lanbide Heziketako beste sei titulu ezartzen ditu 2. artikuluan, eta haien zehaztapenak I.etik VI.era bitarteko eranskinetan jaso dira (774/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarrizko Lanbide Heziketako sei titulu ezartzen dituena).

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluari eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egiteke».

Ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoak, curriculumaren gutxieneko osagaiak arautzen ditu 5. artikuluan. Bestalde, 6.ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketako

heziketa-zikloen curriculumak garatzeko jarraibideak biltzen dira, ezertan galarazi gabe oinarritzko curriculumean ezarritakoa. Curriculumak garatzeko, beharrezko egokitzapenak egin ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko inguruabar sozial, ekonomiko, produktibo eta hezkuntzako araberak.

Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzea, lehenago aipatutako dekretuaren arabera.

Dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlearitza Kontseiluak 2016ko uztailaren 7an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarritzko Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzen dira.

2. artikulua.– Tituluen identifikazioa.

Curriculumak dekretu honetan ezarrita dituzten tituluak arauotan ageri dira: 127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarritzko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituen, hamalau oinarritzko lanbide-titulu onartzen dituen, haien oinarritzko curriculumak finkatzen dituen eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena; 356/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarritzko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen dituen; eta 774/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen titulu-katalogoko Oinarritzko Lanbide Heziketako sei titulu ezartzen dituen.

3. artikulua.– Curriculumak identifikatzea.

1.– Dekretu honetan ezartzen diren Oinarritzko Lanbide Heziketako tituluen curriculumak bat datoz otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren III. eta IV. kapituluetan jasotakoarekin, baita dagokion arauak titulu bakoitzerako arautzen duen oinarritzko curriculumarekin ere.

2.– Beste eranskin hauetan daude dekretu honetan ezartzen diren Oinarritzko Lanbide Heziketako tituluen curriculumetako lanbide-moduluetako irakaskuntzak eta gainerako elementu espezifikoak:

I. eranskina: Nekazaritzako Lorezaintzako eta Lore Konposizioetako oinarritzko lanbide-tituluak.

II. eranskina: Arte Grafikoetako oinarritzko lanbide-tituluak.

III. eranskina: Merkataritza Zerbitzuetako oinarritzko lanbide-tituluak.

IV. eranskina: Elektrizitateko eta Elektronikako oinarritzko lanbide-tituluak.

V. eranskina: Eraikinak Eraberritu eta Mantentzeko oinarritzko lanbide-tituluak.

- VI. eranskina: Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko oinarrizko lanbide-titulua.
- VII. eranskina: Informatika eta Komunikazioetako oinarrizko lanbide-titulua.
- VIII. eranskina: Bulegoko Informatikako oinarrizko lanbide-titulua.
- IX. eranskina: Ostatuko eta Ikuztegiko oinarrizko lanbide-titulua.
- X. eranskina: Ehunezko eta Larruzko Artikuluen Konponketako oinarrizko lanbide-titulua.
- XI. eranskina: Ibilgailuen Mantentze Lanen oinarrizko lanbide-titulua.
- XII. eranskina: Arotzeriako eta Altzarigintzako oinarrizko lanbide-titulua.
- XIII. eranskina: Elikagaien Industrietako oinarrizko lanbide-titulua.
- XIV. eranskina: Ile-apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide-titulua.
- XV. eranskina: Administrazio Zerbitzuetako oinarrizko lanbide-titulua.
- XVI. eranskina: Kirol Ontziak eta Laketontziak Mantentzeko Lanetako oinarrizko lanbide-titulua.
- XVII. eranskina: Etxeko Jardueretako eta Eraikin Garbiketako oinarrizko lanbide-titulua.
- XVIII. eranskina: Okintzako eta Pastelgintzako oinarrizko lanbide-titulua.
- XIX. eranskina: Etxebizitzen Mantentze Lanetako oinarrizko lanbide-titulua.
- XX. eranskina: Elementu Metalikoen Fabrikazioko oinarrizko lanbide-titulua.

3.– Dekretuan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskinen 2.2 atalean adierazita daude titulu bakoitzeko Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalen kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrendak.

4.– Dekretuan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskinen 6. atalean adierazita daude heziketa-ziklo bakoitzeko lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasunak, haiek egiaztatu edo baliozkotu behar izanez gero.

5.– Dekretuan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskinen 4. atalean adierazita daude lanbide-heziketako zentroetan irakaslan garatu ahal izateko gutxienezko espazioak eta ekipamenduak. Horretaz gain, zentroek nahitaez bete behar dituzte zenbait arau; hain zuzen ere, aukera-berdintasunari buruzkoa, denentzako diseinuari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta lanpostuko segurtasunari eta osasunari buruzkoa.

6.– Hemen adierazita daude Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 42.4 artikuluan ezarrita dauden eta dekretu honen eranskinetan aipatzen diren eduki-bloke komunekin erlazionatutako modulu bakoitzeko irakasleen betekizunak: otsailaren 28ko 127/2014 Dekretuaren 20. artikulua, eta azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuaren VI. eranskina (1834/2008 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta erregimen bereziko irakaskuntzetan irakasteko prestakuntza-baldintzak ezartzen dituen eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza-kidegoen espezialitateak zehazten dituen), uztailaren 17ko 665/2015 Errege Dekretuak emandako idazketan –665/2015 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta araubide bereziko ikasketetan irakasteari buruzko eta irakasleen hasierako prestakuntzari eta Bigarren Hezkuntzako irakasle kidegoen espezialitatei buruzko xedapen jakin batzuk garatzen dituen–).

7.– Hemen adierazita daude heziketa-ziklo bakoitzeko gainerako moduluetan irakatsi behar duten irakasleen betekizunak: otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren 20. artikulua, eta dekretu honetan heziketa-ziklo bakoitzari dagokion eranskineko 5. atala.

4. artikulua.– Hezkuntza-ingurunera egokitzea.

1.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakas-kuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

2.– Ikastetxearen ikasketa-proiektuaren arabera, ikastetxeko sailtako irakasleei dagokie Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak osatzen dituzten lanbide-moduluen programa-zioak prestatzea eta onartzea. Horretarako, ezartzen diren helburu orokorrak izan behar dituzte kontuan; lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak errespetatu behar dituzte; eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu behar dute euskarri gisa.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikasteko metodologia berritzaileak.

Ikastetxeek aukera izango dute, duten autonomia pedagogikoaz eta antolamendukoaz baliatuta, eta ikasketa-proiektuko aurreikuspenen arabera, dekretu honen eranskinetan lanbide-moduluek duten iraupena zertxobait aldatzea proposatzen duten proiektuak prestatzeko, heziketa-zikloak emateari buruzko estrategietan eta metodologietan oinarrituta. Hori egin ahal izango da, baldin eta ez bada aldatzen haien mailakako banaketa, eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzerako ezarri diren gutxieneko ordutegiak errespetatzen badira. Lanbide-heziketaren arloko eskumena duen sailburuordetzaren baimena beharko dute proiektuok.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

XIII. ERANSKINA, UZTAILAREN 7KO 104/2016 DEKRETUARENA

ELIKAGAIEN INDUSTRIETAKO OINARRIZKO LANBIDE-TITULUA

1.– Tituluaren identifikazioa

Elikagaien Industrietako oinarrizko lanbide-titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Elikagaien Industriak.
- Maila: Oinarrizko Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Elikagaien Industriak.
- Europako baliokidea: INSN-3.5.3. (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua).

2.– Lanbide-profila

2.1 Tituluaren kompetentzia orokorra.

Tituluaren kompetentzia orokorra da lehengaiak eta produktu osagarriak hartzea, prestatzea eta prozesatzea, elikagaien industrietan eta industria kimikoetan produzitzeko, produktuak elaboratu eta ontziratzeke ezarritako protokoloak aplikatuz eta laborategiko eragiketa sinpleak eta ohikoak eginez, adierazitako kalitatearekin lan eginez, elikagaien higienerari, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenaren babesari buruzko arauak errespetatuz, eta ahoz eta idatziz gaztelaniaz komunikatuta eta, dagokionean, bertako hizkuntza koofiziala erabiliz; baita atzerriko hizkuntzaren bat ere.

2.2. Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Elikagaien industriako elaborazio-eragiketa osagarriak .INA172_1. (1228/2006 Errege Dekretua, urriaren 27koa). Kompetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC0543_1: Lehengaiak jasotzeko eta prestatzeko laguntza-zereginak egitea.

UC0544_1: Elikagaiak elaboratzeko, tratatzeko eta kontserbatzeko laguntza-zereginak egitea.

UC0545_1: Elikagaiak ontziratzeke, egokitzeko eta paketatzeke ekipamenduak eta instalazioak maneiatzea mendeko laneko argibide normalizatuei jarraikiz.

UC0432_1: Orga jasotzaileekin kargak manipulatzeko.

b) Elikagaien industriako mantentze-lanetako eta barne-garraioko eragiketa osagarriak .INA173_1. (1228/2006 Errege Dekretua, urriaren 27koa). Kompetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC0546_1: Elikagaien industriako ekipamenduetako eta instalazioetako nahiz ingurunea babesten laguntzeko ekipamenduetako eta instalazioetako garbiketa- eta higiene-eragiketak egitea jasotako argibideen arabera.

UC0547_1: Elikagaien industriako makinaren eta instalazioen mantentze-lan operatiboan laguntzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.

UC0432_1: Orga jasotzaileekin kargak manipulatzeko.

- Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

a) Industria eta laborategi kimikoetako eragiketa lagungarriak eta biltegiko eragiketak QUI405_1. (1179/2008 Errege Dekretua, uztailaren 11koa). Kompetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1310_1: Produktu kimikoak erabiltzen diren materialak, ekipoak eta instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko eragiketak egitea.

UC1312_1: Industria kimikoko eta kidekoetako laborategietan eta prozesuetan oinarritzko eragiketa osagarriak egitea.

b) Biltegiko jarduera osagarriak .COM411_1. (1179/2008 Errege Dekretua, uztailaren 11koa).
Kompetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1325_1: Salgaiak biltegian jasotzeko, kokatzeko, mantentzeko eta bidaltzeko eragiketa osagarriak gauzatzea, taldean lan eginez.

2.3 Lanbide-ingurunea

2.3.1 Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

Elikagaien eta edarien industriako peoia.

Lehengaien prestatzailea.

Elikagaiak elaboratzeko eta ontziratzeko makinetako langilea.

Biltegiko morroia. Eskorga-gidaria.

Elikagaien instalazioko laguntzailea.

Elikagaien industriako mantentze-lanak egiteko laguntzailea.

Ekoizpen-lerroko laguntzailea.

Biltegiko laguntzailea.

Laborategiko instalazio, gailu eta materialen garbiketako eta desinfekzioko laguntzailea.

Hondakin-instalazioen laguntzailea.

Urak tratatzeko instalazioko laguntzailea.

3.- Heziketa-zikloko irakasgaiak

3.1 Tituluaren helburu orokorrak

a) Elikagaien industriako lehengaiak eta produktu osagarriak identifikatzea, zein prozesutan esku hartzen duten antzemanaz, haiek hartzeko eta prestatzeko oinarritzko zereginak egiteko.

b) Behar diren makina eta ekipoak maneiitzea, aplikatu beharreko prozeduraren zehaztapenak interpretatuz, elikagaiak ontziratzen, egokitzen eta enbalatzen parte hartzeko.

c) Neurri higieniko-sanitarioak aplikatzea, elikagaien segurtasuneko araudia ezagutuz, elikagaiak elaboratzeko, kontserbatzeko eta akabera emateko eragiketetan esku hartzeko.

d) Behar diren makina eta ekipoak maneiitzea, aplikatu beharreko prozeduraren zehaztapenak interpretatuz, elikagaiak elaboratzeko, kontserbatzeko eta akabera emateko eragiketetan esku hartzeko.

e) Lan-eremuek, ekipo eta instalazioek bete beharreko zehaztapenak ezagutzea, garbiketa- eta higiene-eragiketak egiteko.

f) Ingurumen-kudeaketako planean jasotako jarraibideak interpretatzea, hondakinak biltzeko, ezabatzeko eta tratatzeko eragiketak egiteko.

g) Makina, ekipo eta lanabesak erabiltzeko eskuliburuak interpretatzea, eragiketen sekuentzia interpretatuz, oinarritzko mantentze-lanak egiteko.

h) Erreaktiboak identifikatzea eta kantitateak kalkulatzeko, ohiko nahasketak eta disoluzioak prestatzeko.

i) Laborategiko ekipo eta instalazio osagarrien eraginkortasun-egoera egiaztatzea, euren lehen mailako mantentzea egiteko.

j) Biltegietako espazio eta eremuak sailkatzea, bakoitzarentzako egokiak diren garraio- eta biltegitarte-elementuekin lotuz, salgaiak maneiatu, garraiatu eta egokitzeko.

k) Ingurune naturalean izaten diren gertakariak ulertzea ezagutza zientifikoa jakintza integratu baten moduan erabiliz; halaber, ezagutzaren eta esperientziaren eremuetan oinarritzko arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutu eta aplikatzea.

l) Trebetasunak garatzea arazoak formulatu, planteatu, interpretatu eta konpontzeko; kalkulu matematikoaren arrazoinamendua aplikatzea gizartean eta lan-ingurunean moldatzeko, eta bere

baliabide ekonomikoak kudeatzea.

m) Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarritzko alderdiak identifikatu eta ulertzea eta horiek norberaren eta taldearen osasunarekin lotzea; gainera, higiena eta osasuna baloratzea bizitzan ohitura osasungarriak garatu eta finkatzeko, zein ingurunetan dauden kontuan hartuta.

n) Natura-ondarearen zaintzarekin eta iraunkortasunarekin bat datozen ohiturak eta balioak garatzea, eta izaki bizidunen eta natura-ingurunearen arteko elkarreragina ulertzea, horrela gizakien ekintzak ingurumenaren orekan dituen ondorioak baloratu ahal izateko.

ñ) Informazio-iturrien oinarritzko trebetasunak garatzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikuspegi kritikoz erabiltzea, ingurune pertsonal, sozial edo profesionalean informazioa lortu eta jakinarazteko.

o) Kultura- eta arte-ekoizpenen oinarritzko ezaugarriak ezagutzea, haien elementuak aztertzeo oinarritzko teknikak aplikatuz, errespetuz eta sentikortasunez jokatzeko kultura-aniztasunaren, ondare historiko-artistikoaren eta kultura- zein arte-adierazpenen aurrean.

p) Hizkuntza-trebetasun eta -abiltziak garatu eta finkatzea eta eskatzen den zehaztasun, argitasun eta arintasun maila lortzea, gaztelaniari eta, hala denean, hizkuntza koofizialari buruzko ezagutzak erabiliz gizarte-ingurunean, eguneroko bizitzan eta lan-jardueran komunikatzeko.

q) Atzerriko hizkuntzan oinarritzko hizkuntza-trebetasunak garatzea, ahoz eta idatziz komunikatu ahal izateko eguneroko bizitzan eta lan-jardueran ohikoak eta aurreikustekoak diren egoeretan.

r) Gaur egungo gertakarien arrazoiak eta ezaugarriak ezagutzea, baita bilakaera historikoari eta banaketa geografikoari dagozkionak ere, gaur egungo gizartearen ezaugarriak azaltzeko.

s) Printzipio demokratikoetan oinarritutako balioak eta jokaerak garatzea, eta ohiko harreman sozialetan eta gatazken konponbide baketsuan aplikatzea.

t) Prestakuntzarako dauden baliabideak eta eskaintzak alderatu eta hautatzea bizialdi osoko ikaskuntzarako, horrela lan-egoera berriei eta egoera pertsonal berriei egokitzeko.

u) Ekimena, sormena eta joera ekintzailea garatzea, baita norberarengan konfiantza izatea, parte-hartzea eta ikuspegi kritikoa izatea ere, egoerak eta gorabeherak konpondu ahal izateko bai lan-jardueran bai eremu pertsonalean.

v) Lanak taldean egitea, nor bere betebeharrak hartuz, besteak errespetatuz eta beraiekin elkarlanean arituz, baita besteekiko tolerantziaz eta errespetuz ere, zereginak eraginkortasunez egiteko eta garapen pertsonalerako lagungarri izateko.

w) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informatzeko, komunikatzeko, ikasteko eta laneko zereginak errazteko.

x) Laneko eta ingurumeneko arriskuak lan-jarduerarekin erlazionatzea, norbera babesteko behar diren prebentzio-neurriak erabiltzeko xedez, eta beste pertsoneri eta ingurumenari kalterik ez egiteko.

y) Bere lanbide-jarduerako teknikak garatzea lanaren eraginkortasuna eta kalitatea ziurtatuz, eta, bidezkoa bada, laneko jardueretan hobekuntzak proposatzea.

z) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluak

a) Harategia-urdaitegia aukera:

KODEA	LANBIDE-MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	IKASTA ROA
3133	Elikagaien industriako eragiketa osagarriak	132	1
3134	Elikagaiak prestatzea	198	1
3135	Instalazioen eta ekipoen garbiketa eta mantentze-lanak	165	1
3136	Laborategiko oinarritzko eragiketak	168	2
3070	Biltegiko lan osagarriak	132	1

E630	Haragia salmentarako prestatzea	96	2
E631	Haragi-prestakinak	96	2
3009	Zientzia aplikatuak I	165	1
3042	Zientzia aplikatuak II	144	2
3011	Komunikazioa eta gizartea I	165	1
3012	Komunikazioa eta gizartea II	168	2
E800	Laneko prestakuntza eta orientabidea	53	2
3137	Lantokiko prestakuntza.	260	2
	Tutoretza eta orientabidea I	33	1
	Tutoretza eta orientabidea II	25	2
GUZTIR A		2.000	

b) Elikagai-merkataritza aukera:

KODEA	LANBIDE-MODULUA	ORDU- ESLEIPENA	IKASTA ROA
3133	Elikagaien industriako eragiketa osagarriak	132	1
3134	Elikagaiak prestatzea	198	1
3135	Instalazioen eta ekipoen garbiketa eta mantentze-lanak	165	1
3136	Laborategiko oinarriko eragiketak	168	2
3070	Biltegiko lan osagarriak	132	1
E632	Produktu freskoak salmentarako manipulatzeko	120	2
E633	Saltokiko eta gune osagarrietako eragiketak	72	2
3009	Zientzia aplikatuak I	165	1
3042	Zientzia aplikatuak II	144	2
3011	Komunikazioa eta gizartea I.	165	1
3012	Komunikazioa eta gizartea II	168	2
E800	Laneko prestakuntza eta orientabidea	53	2
3137	Lantokiko prestakuntza.	260	2
	Tutoretza eta orientabidea I	33	1
	Tutoretza eta orientabidea II	25	2
GUZTIRA		2.000	

3.3 Moduluen garapena

Lanbide-modulua: Elikagaien industriako eragiketa osagarriak.

Kodea: 3133.

Kurtoa: 1.a

Iraupena: 132 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Lehengaiak eta produktu osagarriak kontrolatzeko eta jasotzeko lanean laguntzen du, aurretiko neurketak erregistratuz eta ondorengo jarraibideak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hartutako jarraibideak eta lehengaiak eta produktu osagarriak jasotzearekin lotutako dokumentazioa interpretatu ditu.
- b) Lehengaiak eta haien ezaugarriak ezagutu ditu, eta prozesuarekin eta azken produktuarekin lotu ditu.
- c) Aurretiko neurketak egin ditu, eta datuak erregistratu ditu.
- d) Lehengaiak garraiatu eta utzi ditu, lan-jarraibideen arabera.
- e) Eragiketa guztiak egin dituenen araudi higieniko-sanitarioa, laneko segurtasuneko eta ingurumena babestekoa kontuan hartu ditu.

2.- Lehengaiak eta produktu osagarriak prestatzen ditu, behar diren oinarritzko eragiketak eginez eta elaborazio aurreko prozesuko jarraibideak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lehengaiak prestatzeko erabili beharreko materiala prest jarri du.
- b) Behar den lehengaia hautatu du, lortu nahi den produktua kontuan hartuta.
- c) Lehengaia garbitu du, sobera dauden zatiak kenduz.
- d) Lehengaiak eta sartu diren produktuak zatitu, eho edo txikitu ditu, behar izan denean.
- e) Prozesuko erritmoa kontrolatu du, sarreran tratatzeak edo pilaketak saihestuz.
- f) Eragiketa guztiak egin dituenen araudi higieniko-sanitarioa, laneko segurtasuneko eta ingurumena babestekoa kontuan hartu ditu.

3.- Elikagaiak ontziratatu, egokitu eta enbalatzeko materialak prestatzen ditu, ekipo espezifikoak lan-jarraibideen arabera erregulatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ontziratze- eta konfiguratze-lanerako egokiak diren lanabes eta materialak aukeratu ditu.
- b) Elikagaiak ontziratzeke era nagusiak identifikatu ditu.
- c) Kanpo-ontziak garbitu ditu behar diren higiene-baldintzetan.
- d) Enbalatzeko materialak ezagutu ditu.
- e) Ontziratze-lerroko ekipoak erregulatu ditu jasotako jarraibideen arabera.
- f) Ontziratze, egokitze eta enbalaje mota produkzio prozesuarekin eta lortutako produktuarekin erlazionatu du.
- g) Azken aurkezpenarekin lotutako egokitze-materialak egiaztatu ditu.
- h) Araudi higieniko-sanitarioa eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako segurtasun neurriak (materialak prestatzeko eta ekipoak prestatzeko eragiketei lotutakoak) aplikatu ditu.

4.- Elikagaiak ontziratatu eta egokitzen ditu, prozesuaren lerro automatikoak jarraibideen arabera kontrolatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ontziratze-prozesuko makinak eta ekipo nagusi eta osagarriak gainbegiratu eta prest jarri ditu.
- b) Elikagaien ontzien betetze, ixte eta etiketatze automatikoaren kontrola egin du.
- c) Produzitutako kontsumigarri eta ontzien zenbaketa erregistratu du laneko orri eta parteetan.
- d) Zenbatutako ontziak non kokatu behar diren ezagutu du.
- e) Soberakinak eta hondakinak nola eta non utzi behar diren ezarri du, gero berreskuratu edo ezabatzeko.
- f) Araudi higieniko-sanitarioa eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako segurtasun neurriak (produktuak ontziratatu eta egokitzeko makinak eta ekipoen erabilerari dagozkionak) aplikatu ditu.

5.- Ontziratutako elikagaiak paketatu eta enbalatzen ditu, lan-jarraibideen arabera ekipo automatiko edo erdi-automatikoekin jardunez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enbalatzeko material nagusi eta osagarrien lerro edo ekipoak behar bezala kokatuta daudela egiaztatu du.
- b) Enbalatzeko makinekin jardun du, funtzionamendua kontrolatuz.
- c) Enbalatzeko azken eragiketak egiaztatu ditu.
- d) Enbalajearen hondakinak non eta nola utzi identifikatu du, gero berreskuratu ahal izateko.
- e) Produzitutako kontsumigarrien eta pakete edo unitateen kopurua erregistratu du.
- f) Araudi higieniko-sanitarioa eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako segurtasun neurriak (enbalatzeko eragiketei lotutakoak) aplikatu ditu.

B) Edukiak:

1.- Lehengaiak kontrolatzea eta hartzea

Lehengaiak. Sailkapena.

Aldaerak eta zehaztapenak lortuko den produktuaren arabera.

Elikagaien industrian erabilitako produktu osagarri nagusiak.

Salgaiak hartzea elikagaien industrian. Eragiketa eta egiaztapen orokorrak.

Lehengaien kantitateak neurtu eta kalkulatzeko.

Oinarrizko dokumentazioa. Albaranak eta jasotze-orriak.

Lehengaiak hautatu eta sailkatzeko metodoak.

Lehengaien oinarrizko hautemate sentzoriala.

Lehengaiak kontrolatu eta baloratzeko lanabesak eta ekipoak. Prest jartzea eta kontrola egitea.

Hartutako lehengaien erregistroak eta idatzoharrak.

Lehengaiak eta material osagarriak kontserbatzea.

Lehengaiak uzteko eta kontserbatzeko ganberak.

Substantzia kontserbatzaileak. Kontserbatzeko beste neurri batzuk.

Gehigarri eta baliabide egonkortzaileak. Gozagarriak eta espeziak.

Elikagaien industriako gehigarrien sailkapena eta deskribapena.

Soluzio eta baliabide egonkortzaileak: gatzunak, saltsak eta ongailuak.

2.- Lehengaiak eta produktu osagarriak prestatzea

Lehengaiak prestatzeko oinarrizko eragiketak. Deskribapena.

Kalibratzea, garbitzea, sikatzea, eskuilatzea, zatitzea, zuritzea, hezurgabetzea, ebakitzea, birrintzea, nahastea, irabiatzea, kontzentratzea, deshidratatzea, galdarraztatzea, higienizatzea, zatikatzea eta desizoztea, besteak beste.

Eragiketa eta ekipo espezifikoak. Emaizak.

Lehengaiak prestatzeko erabilitako oinarrizko lanabes eta erremintak.

Makineria eta ekipo espezifikoak: puntuan jartzea eta maneiatzea.

Makinerian eta ekipoetan, kontrol mekanismo sinpleak maneiatzea eta parametroak erregulatzea.

3.- Materialak prestatzea

Elikagaiak ontziratzearen funtzioak eta ondorioak.

Elikagaiak ontziratze erabilitako materialen ezaugarriak eta propietateak.

Elikagaiak ontziratze era nagusiak. Ontziratze aseptikoa, airearekin ontziratzea, hutseko ontziratzea, atmosfera aldatuarekin ontziratzea, ontziratze aktiboa.

Ontzi metalikoak: aluminioa, latorria. Eraketa eta propietateak. Beirazko eta zeramikazko ontziak: flaskoak, botilak eta txanbilak. Paperezko eta kartoizko ontziak. Propietateak. Brikak, kartoiak eta papera. Material plastiko eta konplexuzko ontziak. Ezaugarriak eta propietateak. Poltsak, erretiluak, ontzi malgu esterilatuak, termoformatuak. Beste ontzi batzuk.

Egokitzeko materialak: askotariko bilgarriak. Osagarrietarako eta aurkezteko produktuak eta materialak.

Estaldura eta geruza jangarriak.
Etiketak, errotulazioa eta identifikazio- eta informazio-elementuak.
Produktuak egokitzeari buruzko legezko betekizunak.

4.- Elikagaiak ontziratzea eta egokitzea.

Ontziratzeke eta egokitzeke eragiketak.
Ontzia in situ osatzea.
Ontziak manipulatu eta prestatzea. Ontziak garbitzea.
Betetzeko eta dosifikatzeko prozedura.
Itxitura motak edo sistemak.
Egokitzeke eta identifikatzeko prozedurak.
Ontziratzeke, erregulatzeko eta maneiatzeko eragiketak.
Atmosfera aldatuan ontziratzea.
Oinarrizko motak, konposatu nagusiak eta ontziratzearen funtzionamendua.
Ekipo osagarriak. Funtsezko mantenimendua, puntuan jartzea.
Ontziratzeke eta egokitzeke eskuzko makinak. Itxitura motak.
Ontziratzeke eta egokitzeke makina automatikoak.
Lerro automatizatu integralak.

Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko zehaztapenak, elikagaiak ontziratzeke eta egokitzeke prozesuei aplikatzekoak direnak.

5.- Elikagaiak paketatzea eta enbalatzea.

Enbalatzeko materialak.
Paperak, kartoiak eta plastikoak.
Zumitzak, zintak eta kordelak.
Erretiluak eta enbalatzeko beste euskarri batzuk.
Gomak eta kolak.
Gehigarriak, grapak eta zigiluak.
Enbalatzeko beste material batzuk.
Enbalatzeko materialak manipulatzeko eta prestatzea.
Paketatzeko, erretraktilatzeke, orientatzeko eta loteak osatzeko prozedurak.
Loteen errotulazioa eta identifikazioa.
Paletizatzea eta paletak mugitzea.

Ontziratzeak, egokitzeak eta enbalatzeak eragindako soberakin eta hondakinen destinoa eta kokapena.

Kontsumoen eta produkzioaren idatzoharrak eta erregistroak.

Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko zehaztapenak, elikagaiak paketzeko prozesuei aplikatzekoak direnak.

Lerro automatizatu integralak.

Enbalatzeko makinak. Oinarrizko motak, konposatu nagusiak eta enbalatzearen funtzionamendua.

Enbalatzeko ekipo osagarriak.

Funtsezko mantenimendua eta puntuan jartzea.

Enbalatzeko eskuzko makinak. Makina automatikoak eta robotizatuak.

Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko zehaztapenak, elikagaiak ontziratzeke eta egokitzeke prozesuei aplikatzekoak direnak.

Lanbide-modulua: Elikagaiak prestatzea

Kodea: 3134

Kurtsoa: 1.a

Iraupena: 198 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Elikagaiak elaboratzen ditu, prozesuari dagozkion teknika sinpleak eta lanabesak eta ekipoak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentazioa eta lan-jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Elikagaiak elaboratzeko egin beharreko eragiketak ezagutu ditu.
- c) Behar bezala erabili ditu lanabes, ekipo eta substantziak.
- d) Elaboratutako produktua osatzen duten osagai eta substantziak ipini ditu.
- e) Prozesuaren erritmoari eutsi dio, aparteko gorabeherak saihestuz.
- f) Produktuak manipulatzeko eta ekipoak maneiatzeko higie- eta segurtasun-neurri espezifikoak aplikatu ditu.

2.- Elikagaiak kontserbatzeko eta akabera emateko azken tratamenduko oinarritzko eragiketak egin ditu, hartutako jarraibideen arabera teknikak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikagaiak kontserbatzeko eta akabera emateko azken tratamenduetan esku hartzen duten ekipo eta instalazioak identifikatu ditu.
- b) Tratamendurako ekipo eta ganberak kargatu ditu, prozesurako ezarritako moduan eta kopuruan.
- c) Ekipo eta instalazioak erregulatzeko baliabide eta sistemak kontrolatu ditu.
- d) Parametro estandarren adierazleak berrikusi eta datuak erregistratu ditu.
- e) Tratamenduko produktuak toki eta modu egokian utzi ditu, geroago lekualdatu ahal izateko.
- f) Laginak hartzen lagundu du, jarraibideak aplikatuz eta azalpenak zehaztuz.
- g) Eragiketa guztiak egin dituen araudia higieniko-sanitarioa, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartu ditu.

3.- Elikagaien industriako instalazio eta zerbitzuetan oinarritzko mantentze-eragiketak egin ditu, mantentze-lanetan lagunduz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikagaien industriak dituen zerbitzu osagarriak identifikatu ditu, produkzio-prozesuarekin lotuz.
- b) Zerbitzu osagarrien eroanbideen seinaleak, koloreak eta trazatuak ezagutu ditu.
- c) Produkzioko eragiketa sinple eta ohikoetan aginte eta aparatu erregulatzailerekin jardun du.
- d) Zerbitzu eta instalazio osagarriak puntuan jartzen eta haien oinarritzko mantentze-lanetan lagundu du.
- e) Norberaren segurtasunerako eta ingurumena babesteko neurriak hartu ditu.

4) Lehengaiak eta produktu osagarriak prestatzeko eragiketetan elikagaien segurtasuneko arauak hartzen ditu, arrisku-faktoreez eta arrisku horiek prebenitzeko neurri eta ekipoez ohartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikagaien higienari buruzko oinarritzko arauak ezaugarritu ditu.
- b) Lehengaiak hartzean, behar diren higie-neurriak aukeratu ditu.
- c) Salgaien garraio-, atsedeen- eta kokapen-eragiketetarako ezarritako higie-neurriak hartu ditu.
- b) Lehengaiak eta osagarriak tratatzean, behar diren higie pertsonaleko neurriak aukeratu ditu.
- e) Instalazio eta ekipoen higie-betekizun orokorrak bete ditu.
- f) Hondakinak batu eta kontrolatu ditu, ezarritako higie-neurriak hartuz.

B) Edukiak:

1.- Produktuak elaboratzeko teknikak

Elikagaiak prozesatu eta elaboratzeko industria nagusiak: haragi-industriak; arrainen eraldakuntzarako industriak; fruta eta barazkien eraldakuntzarako industriak; esne-industriak eta oboproduktuak; zerealen, irinen eta deribatuen industriak; olio eta koipeetarako industriak; azukre-, txokolate- eta gozogintza-industriak; edariak ontziratatu, tratatu eta elaboratzeko industriak; hainbat produktutarako industriak.

Elikagaiak elaboratzeko oinarrizko eragiketak: beroaren bidezko tratamenduak, sikatzea, airea kentzea, irradiazioa, goi-presioa; hotzaren bidezko tratamenduak, ur edukiaren manipulazioa, iragazketa, liofilizazioa, substantzia kimikoak gehitzea, gazitzea, ketzea, hartidura eta heltzea; estrusiorako, hestebeteak egiteko, solidoen tamaina txikitzeo, prentsatzeko, baheketarako, txikitzeo, kontzentratzeo, emultsionatzeko eta gelifikaziorako teknikak; banaketa teknikak.

Elikagaiak elaboratzeko erabilitako ekipoak, makineria eta lanabesak. Tratamendu termikoetarako ekipoak: sikatzeko tratamenduak, bero bidezko kontserbazio-tratamenduak eta hotz bidezko kontserbazio-tratamenduak. Elikagaien industriako oinarrizko lanabesak. Maneiua.

Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko zehaztapenak, elikagaiak elaboratzeari aplikatzekoak direnak.

2.- Elikagaiak kontserbatzeko eta akabera emateko azken tratamenduak.

Elikagaiak kontserbatzeko eta akabera emateko tratamendu motak. Produktuak eta prozesuak. Produktuak kontserbatzeko eta akabera emateko ekipoen eta makineriaren deskribapena eta oinarrizko maneia.

Datuak kontrolatu eta erregistratzeko oinarrizko sistemak.

Anomaliak eta zuzenketak.

Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko zehaztapenak, elikagaien kontserbazioari eta akabera emateari aplikatzekoak direnak.

3.- Instalazioak eta zerbitzu osagarriak manipulatzeko

Erregulatzeko elementuak. Sistema osagarrien ekipoak.

Aire-produkzioa. Aire eta gasak elikagaien industrian.

Aire eta gasak produzitu eta egokitzeo instalazioak. Aire konprimatua produzitu eta eramatea.

Konpresoreak. Aire egokitzea.

Beroa sortzea. Beroa sortzeko instalazioak.

Beroa transmititzeko oinarriak. Galdarak edo lurrin-sorgailuak.

Ur beroa eta lurrina sortzea. Zirkuituen banaketa.

Bero-trukagailuak. Motak

Hotza sortzeko eta mantentzeko instalazioak. Oinarriak. Oinarrizko elementuak.

Lurrungailua, konpresorea, kondentsadorea, hedapen-balbula. Hozte-dorreak.

Elektrizitatea sortzeko eta banatzeko instalazioak.

Elikagaiak prozesatu eta elaboratzeko instalazio mota nagusien oinarrizko deskribapena eta oinarrizko jarduerak.

Ura egokitzea. Uraren banaketa. Ponpatzea. Eroanbideak. Osagarriak:

4.- Elikagaien segurtasuna

Elikagaien alterazioa eta kutsadura. Kutsadura-iturriak. Kutsadura fisikoa, kimikoa eta biologikoa. Elikagaiak kutsatzeko arrazoiak eta kutsadura motak.

Agente biologikoak. Ezaugarriak eta motak.

Mikroorganismoak: bakteriak, birusak, parasitoak eta lizunak. Elikagaietan mikroorganismoen garapena eragiten duten faktoreak.

Elikagaien higieneko oinarrizko arauak.

Elikagaien manipulazioari buruzko araudia.

Higiene pertsonaleko neurriak.

Jantziak eta janzkera elikagaien industrian.
Instalazioen eta ekipoen betekizun higieniko orokorrak.
Higieneko jardunbide egokien gida.

Lanbide-modulua: Instalazioen eta ekipoen garbiketa eta mantentze-lanak
Kodea: 3135
Kurtsoa: 1.a
Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Elikagaien industriako lan-eremuak, instalazioak, makineria eta equipoak garbitu eta desinfektatzeko ohiko zereginak egiten ditu, garbitzeko eta desinfektatzeko prozedurak eta bere lanarekin lotutako higiene pertsonaleko eta orokorreko neurriak ezagututa.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garbitzeko eta desinfektatzeko bitarteko eta produktuak, eta bitarteko eta produktu horiek aplikatuko diren eremuekin, instalazioekin eta equipoekin erlazionatu ditu.
- b) Higiene- eta desinfekzio-produktuak prestatu ditu elikagaien industriako instalazio eta equipoak garbitzeko.
- c) Higienizatzeko lanabesak eta makineria erabili ditu.
- d) Garbiketa, desinfekzio eta higienizazio prozesu eta prozedurak egin ditu, eskuzkoak edo automatikoak.
- e) Egindako lana espero izandakoa dela egiaztatu du, ezarritako parametroen arabera.
- f) Eragiketa guztiak egin dituenean araudi higieniko-sanitarioa, laneko segurtasuneko eta ingurumena babestekoa kontuan hartu ditu.

2.- Laborategi eta industria kimikoetako material, tresna, ekipo eta eremuetan zikinkeria ezabatzeko ohiko zereginak egiten ditu, garbitzeko eta desinfektatzeko prozedurak eta bere lanarekin lotutako higiene pertsonaleko eta orokorreko neurriak ezagututa.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garbitzeko equipoak eta produktuak erlazionatu ditu horiek aplikatuko diren laborategietako materialekin, tresnekin, equipoekin eta eremuekin, bai eta zikinkeria ezaugarriekin ere.
- b) Garbitzeko produktuak eta equipoak behar bezalako egoeran daudela egiaztatu du.
- c) Produktu kimikoen hondakinak ezabatzeko edukiontziak leku egokian daudela egiaztatu du.
- d) Manipulatzen dituen produktuei dagokien laneko arropa erabili du.
- e) Manipulatzen dituen produktu-motei dagozkien babes-ekipoak ezagutu eta erabili ditu.

3.- Garbiketa espezifikoa egiten ditu, premiaren eta pertsona, ekipo eta instalazioentzako arriskuaren arabera, jarraibideak betez eta ezarritako protokoloen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bereizi egin ditu, batetik, ustekabeko garbiketa dela-eta urgentziaz jardutea, eta, bestetik, garbiketa-planetan alde aurretik ezarritako garbiketa.
- b) Laborategi eta industria kimikoak araudian ezarritako maiztasunaz garbitu ditu.
- c) Ustekabeko isuriak ezabatzeko, material eta ekipo espezifikoa erabili ditu.
- d) Ezarritako erregistroak bete ditu.
- e) Ingurumen-kudeaketako arduradunari kudeatzaile baimendu baten bidez ezabatzen diren hondakinak kendu beharra jakinarazi dio.
- f) Eragiketa guztiak egin dituenean, laneko segurtasun-araudia eta ingurumena babestekoa kontuan hartu ditu.

4.- Hondakinak bildu, araztu eta isurtzeko eragiketak egiten ditu, ingurumen-kudeaketako planetan ezarritako prozedurak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikagaien industrian sortzen diren hondakin motak identifikatu ditu.
- b) Elikagaien industrian sortutako hondakinak eta kutsatzaileak ingurumeneko eraginekin erlazionatu ditu.
- c) Hondakinak biltzen lagundu du, ezarritako neurri eta prozedurekin.
- d) Elikagaien industriako hondakinak eta zaborrak adierazitako tokian biltegitatu ditu.
- e) Arazteko ekipoak ohi bezala maneiatu ditu.
- f) Jasotako jarraibideen arabera hartu du lagina.
- g) Eragiketa guztiak egin dituenen araudi higieniko-sanitarioa, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartu ditu.

5.- Ekipo eta instalazioen prestaketa eta mantentze-lanei dagozkien ohiko zereginak egiten ditu, jasotako jarraibideetan ezarritako prozedurak ezagututa.

Ebaluazio-irizpideak.

- a) Elikagaiak elaboratzeko ganberak, ekipoak eta instalazioak prestatzeko eragiketak ezaugarritu ditu.
- b) Ekipo eta instalazioak prestatu eta puntuan jarri ditu, lan-jarraibideen arabera.
- c) Ekipoen eta instalazioen funtzionamenduan anomaliak hauteman ditu.
- d) Prozesuen ekipo eta instalazioen konponketa sinpleak egiten eta moldaketak eta hobekuntzak egiten lagundu du.
- e) Eragiketa guztiak egin dituenen araudi higieniko-sanitarioa, laneko segurtasuneko eta ingurumena babesteko kontuan hartu ditu.

B) Edukiak:

1.- Garbiketa eta desinfekzioa elikagaien industrietan:

Elikagaien industrien betekizun higieniko-sanitarioak.

Elikagaien industrien garbiketa, arriskuen eta kontrol-puntu kritikoaren azterketarako sistemen (AKPKA) kontrol-puntu kritiko gisa.

Elikagaien industrietan garbiketa eta higienizaziorako erabilitako produktuak.

pH-a aztertzea. Azidoak, neutroak, alkalinoak eta disolbatzaileak.

Ura Propietateak. pH-a, mikroorganismoak, korrosioa, alkalinitasuna, gogortasuna, edangarritasuna eta Langelier-en indizea.

Detergenteak. Neutroak, amoniakatuak, koipegabetzaileak.

Desinfektatzaileak: kloro aktiboa.

Deskonposizio biokimikoko produktuak.

Intsektizidak eta arratoi-pozoia elikagaien industrian.

Produktuen dosifikazioa. Dosifikazio motak.

Produktuen etiketak. Etiketen edukia. Gainazal motari eta erabilera-metodoari buruzko piktogramak.

Produktuak eta ekipoen korrosioa. Aluminio-aleazioak. Altzairu herdoilgaitzak. Material plastikoak.

Baimendutako biozidei buruzko araudia elikagaien industrian. Garbiketa-produktuak biltegitatzeko eta kokatzeko baldintzak eta tokiak.

Ekipamendua. Higienizatzeko lanabesak eta makineria. Lanabesak: baieta, espartzuak, eskuilak, haragana, langarretagailuak, pala, lanbasak eta urez garbitzeko mopak, pertzak. Makineria: erraztatzaile-garbitzaile automatikoak, presio-makinak, lurrun-makinak, aparra sortzeko makinak, erabateko iragazkidun xurgagailua, ozono-sorgailuak. Erabilerak eta aplikazioak.

Garbitzeko lanabesen eta makineriaren antolaketa eta kokapena.

Garbitzeko, desinfektatzeko eta higienizatzeko prozesuak eta prozedurak.

Higieneko eta saneamenduko plana instalazioen, gelen, gainazalen, lanabesen eta makineriaren arabera. CIP eta SIP prozesuak.

Sinner-en zirkulua: denbora, tenperatura, ekintza mekanikoa eta produktu kimikoa.

Garbitzeko eta desinfektatzeko estandarren eragiketa-prozedurak. Garbitzeko makineriaren eskuliburuak.

Garbitzeko eta desinfektatzeko prozesuaren faseak. Aurreikuzketa, garbiketa, tarteko urberritzea, desinfekzioa eta azken urberritzea.

Esterilizazioa. Alderdi orokorrak eta metodoak.

Higienizazio-ekintza bereziak: intsektuak eta arratoiak hiltzea. Prebentzio-neurriak. CIP planak.

2.- Garbiketa laborategietan eta industria kimikoetan

Zikinkeria kontzeptua eta garbiketa motak: Oinarrizko kontzeptuak.

Zikinkeria motak. Zikinkeria-egoerak. Zikinkeraren ezaugarriak eta jatorria. Zikinkeria gainazalean itsastea.

Industria kimikoan erabili ohi diren materialak.

Garbiketaren mekanismoa. Bustitzea. Zikinkeraren desplazamendua. Hotzeko eta beroko garbiketa. Uraren kalitatea. Garbiketaren tenperatura.

Garbiketa-prozedura fisiko eta kimikoak: xurgatze-, absortzio- eta abrasio-sistemak.

Garbiketa sailkatzea: ohiko garbiketak eta mantentzeko garbiketak. Garbiketa bereziak.

Garbiketa-ekipoak eta -produktuak laborategietan eta industria kimikoetan.

Garbiketa-produktuen oinarrizko bateraezintasunak. Garbiketa-produktuak laborategi kimikoetan. Laneko eta norbera babesteko ekipoak. Garbiketa-ekipoen eta -produktuen erabilerak eragindako arriskuak.

3.- Garbiketa espezifikokoak

Garbiketa bereziak. Desinfekzioa, esterilizazioa, intsektuak hiltzea eta arratoiak hiltzea.

Garbiketa-eragiketen antolaketa eta erregistroa. Erregistro-sistemak. Garbitzeko ezarritako protokoloak. Garbitzeko eta desinfektatzeko programaren kontrola eta monitorizazioa. Garbiketa-jarduerek eragindako kontrol-erregistroak eta -fitxak. Ustekabeko isurketa dagoenean jarduteko erreferentziarako arauak eta jarraibideak. Larrialdi-planak ustekabeko isurketak gertatzen diren kasuetarako.

Garbitzeko eta desinfektatzeko eragiketetan erabilitako produktu kimikoen segurtasun-fitxak.

4.- Hondakinak bildu, araztu eta isurtzeko eragiketak elikagaien industrian.

Elikagaien industrietan sortutako hondakin nagusiak.

Elikagaien industrietako isurketen jatorria eta ezaugarriak.

Deribatutako azpiproduktuak eta hondakinak.

Garapen iraunkorra. Hazkunde sostengaezina.

Ingurumen-arazoak. Atmosfera.

Uraren kimika. Zoruaren kimika.

Hondakinen gaikako bilketa. Laginak hartzea. Hondakin arriskutsuen kudeaketa administratiboa. Atmosferarako emisioak.

Beste kutsadura mota batzuk: kutsadura akustikoa.

5.- Ekipoak prestatu eta mantentzea.

Elikagaien industrian erabilitako osagaiak eta ekipo nagusiak.

Tangak, ponpak, balbulak eta hodiak. Neurtzeko eta kontrolatzeko tresnak.

Potentzia mekanikoko elementuak. Txirrikak, engranajeak, abiadura-erreguladoreak.

Makineria eta ekipo osagarriak.

Elementu hidraulikoak eta elektrohidraulikoak.

Elementu pneumatikoak eta elektropneumatikoak. Beroa produzitu eta transmititzeko ekipoak.

Trukagailuak. Aireak produzitu, banatu eta egokitzeko ekipoak. Hotza produzitzeko ekipoak.

Ura egokitzeko sistemak. Automatizazio-sistemak. Barne-erreleak, tenporizadoreak, kontagailuak eta automata programagarriak. Elikagaien tratamendu eta kontserbaziorako teknologia sortu berriak dituzten ekipoak.

Ekipoen lehen mailako mantentzea eta garbiketa.

Lanbide-modulua: Laborategiko oinarrizko eragiketak

Kodea: 3136

Kurtsoa: 2

Iraupena: 168 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Masa eta bolumenak neurtzeko ohiko eragiketa sinpleak egiten ditu, prozedura normalizatuari jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) "Masa" eta "bolumen" kontzeptuak definitu ditu.
- b) Laborategiko oinarrizko materiala ezagutu du.
- c) Erabili beharreko masa-kantitatearen arabera sailkatu ditu balantzak.
- d) Erabili beharreko likido-kantitatearen arabera bereizi ditu bolumenak neurtzeko aparatuak.
- e) Beharrezko jarraibideak betez egin du likidoen aldaketa.
- f) Egindako eragiketak ezarritako euskarrian bete ditu.
- g) Norberaren eta ingurumenaren segurtasun eta babes arauak betez jardun du.

2.- Beharrezko materialak eta produktuak aukeratuz prestatzen ditu ohiko nahasketak eta disoluzioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Disoluzio bat prestatzeko erabili behar diren errektiboak aukeratu ditu.
- b) Nahasketa eta disoluzioen ohiko prestaketetarako materialak eta ekipoak aukeratu ditu.
- c) Behar den kontzentrazioaren kalkuluak egin ditu.
- d) Disoluzio jakin bat prestatzean, solutu eta disolbatzailearen dagozkion neurriak egin ditu.
- e) Arrisku txikiko ohiko nahasketak egin ditu.
- f) Disoluzio sinpleak prestatu ditu.
- g) Prestatutako disoluzioak identifikatu eta etiketatu ditu.
- h) Ohiko nahasketak eta disoluzioak prestatzeko prozesu osoan arriskuak prebenitzeko arauak eta ingurumena babestekoak aplikatu ditu.

3.- Laborategiko eragiketa osagarri sinpleak egiten ditu, ekipo edo lanabes egokiak maneiatuz eta jasotako jarraibideak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Materien tratamendurako oinarrizko propietateak ezaugarritu ditu.
- b) Egin beharreko oinarrizko eragiketak gerora izango den tratamenduarekin erlazionatu ditu.
- c) Sortutako hondakinak tratatu eta ezabatu ditu.
- d) Egindako lanen idatzoharrak egin ditu dagozkien euskarrietan.
- e) Laborategiko eragiketa sinpleak egiteko prozesu osoan arriskuak prebenitzeko arauak eta ingurumena babestekoak aplikatu ditu.

4.- Laborategiko ekipo osagarrien eta instalazioen ohiko prestaketa eta mantentze-lanei dagozkien ohiko zereginak egiten ditu, jasotako jarraibideetan ezarritako prozedurak ezagututa.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laborategiko ekipo eta instalazioak prestatzeko eragiketak ezaugarritu ditu.
- b) Ekipo eta instalazioak prestatu eta puntuan jarri ditu, lan-jarraibideen arabera.
- c) Ekipoen eta instalazioen funtzionamenduan anomaliak hauteman ditu.
- d) Laborategietako ekipo eta instalazioen konponketa sinpleak egiten eta moldaketak eta hobekuntzak egiten lagundu du.
- e) Eragiketa guztiak egin dituenen laneko segurtasun-araudia eta ingurumena babestekoa kontuan hartu ditu.

B) Edukiak:

1.- Masa eta bolumenak neurtzeko ohiko eragiketak.

Produktu kimikoak. Ontzi motak. Produktu kimikoen etiketen piktograma eta etiketak.

Laborategiko gelak eta altzariak.

Masa eta bolumena neurtzeko aparatuak. Balantzak. Balantza motak.

Pipetak eta material bolumetrikoa. Motak eta mantentze-lanak.

Masa eta bolumena neurtzeko sistemak. Unitate-aldaketak.

Kontzentrazioak eta adierazpideak. Kontzentrazioen kalkulu sinpleak.

Norbera babesteko ekipoak kimikako laborategian.

Segurtasuna kimikako laborategian.

2.- Ohiko nahasketak eta disoluzioak prestatzea.

Produktu eta erreaktibo kimiko ohikoenen ezaugarriak eta izendapena.

Nahasketak eta disoluzioak.

Disoluzioak. Disoluzio motak.

Disoluzio baten osagaiak: solutua eta disolbatzailea.

Disoluzioak prestatzea deskribatutako prozeduren arabera.

Disoluzioak prestatzeko tresnak eta ekipoak.

3.- Laborategiko eragiketa osagarri sinpleak.

Laborategiko material eta ekipo arruntak.

Industria kimikoko prozesuetako eragiketa osagarriak.

Materialak eta ekipoak banandu eta akoplatzeko prozedurak.

Materien tratamendurako oinarritzko eragiketak: ehotzea, bahetzea, jalkitzea, iragaztea, dekantatzea, lurruntzea eta sikatzea.

Nahasketak banantzeko metodoak.

4.- Ekipo osagarriak prestatu eta mantentzea.

Laborategietako zerbitzu osagarriak.

Eragiketak ur ekipo eta instalazioekin

Urak tratatzeko ekipo eta instalazioen lehen mailako mantentzea.

Urak tratatzeko ekipoetan ordenatzeko eta garbitzeko prozedurak aplikatzea. Eragiketak gas ekipo eta instalazioekin. Gasa tratatzeko ekipoetan ordenatzeko eta garbitzeko prozedurak aplikatzea.

Gas ekipo eta instalazioen lehen mailako mantentzea.

Lanbide-modulua: Biltegiko lan osagarriak

Kodea: 3070

Kurtsoa: 1.a
Iraupena: 132 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Salgaiak hartzen ditu, eta badaki non-nola biltegiratu haien ezaugarrien arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Etiketak, enbalajeak eta garraio-bideak produktuen eta destinoen tipologiarekin erlazionatu ditu, haiek behar bezala manipulatzeko.
- b) Karga eta salgai motak identifikatu ditu, haien manipulazio-ezaugarri espezifikoaren arabera.
- c) Hartutako salgaiak eta haien etiketak eta albaraneko edukia bat datozela egiaztatzen du.
- d) Salgaien harrerarekin zerikusia duten agiri motak identifikatu ditu: eskabidea, albarana, etiketak, garraio-gutunak eta harrera-akta eta -txostena.
- e) Kargen desadostasun eta arazorik ohikoenak ezagutu ditu.
- f) Karga batetik lagin bat hartu du, ikuskapenerako.
- g) Salgaiak sailkatu ditu haien ezaugarrien eta kontserbazio-baldintzen arabera.
- h) Kargen bilgarria eta loturak kentzeko prozesuak deskribatu ditu, prozesu horiek eskuzkoak edo tresna egokien bidezkoak direla ere.
- i) Kalkulu-orriak erabili ditu biltegiko fitxak betetzeko.
- j) Txosten bat prestatu du harreraren emaitzarekin, aplikazio informatikoak erabiliz.
- k) Denboraz eta ahaleginez aritu da ezagutzak eta informazio osagarriak zabaltzen.

2.- Salgaiak etiketatzen ditu aplikazio informatiko espezifikoaren bidez, eta trazabilitatearen kontrola baloratzen du, haien erregistroa eta kodifikazioa ahalbidetzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Salgaiak kodetzeko sistema desberdinak identifikatu ditu.
- b) Kodeen edukiak eta esanahia deskribatu ditu.
- c) Kodeen indize bat kontsultatu du biltegiko datu-base batean.
- d) Salgaiak etiketatu ditu, kodea ikusgai dagoela.
- e) Produktuak manipulatu eta kontserbatzeko baldintzak ezarri ditu.
- f) Salgaien trazabilitatea deskribatu du, etiketa eta kontrol-agiriak abiapuntu izanik.
- g) Stockeko erregistroan alta egin du, aplikazio informatikoak erabiliz.
- h) Segurtasunari, osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko neurriak errespetatu eta aplikatu ditu biltegian.

3.- Produktuak eta salgaiak biltegiratzen ditu, haien kokapena eta biltegiratzeko baldintzak justifikatuz erabili ahal den espazioaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biltegi motak sailkatu ditu.
- b) Biltegiko eremuen kokapen fisikoa identifikatu du.
- c) Salgaiak biltegian kokatzeko oinarritzko sistemak eta arau orokorrak deskribatu ditu, erabili ahal den espazioa optimizatzeko.
- d) Salgaiak eta produktuak mugitzeko aginduak interpretatu ditu, biltegiko espazioa optimizatzeko edo haiek bidaltzeko edo hornidura egiteko.
- e) Kargak manipulatzeko, eskorga motordunak nola erabili deskribatu du.
- f) Lan-aginduan zehaztutako tokian kokatu ditu kargak edo salgaiak, haien ezaugarriak eta haiek manipulatzeko baldintzak kontuan izanik.
- g) Baliabide informatikoak erabili ditu kargen eta salgaien mugimenduei buruzko informazioa zehaztasunez igortzeko.

h) Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko neurriak aplikatu eta errespetatu ditu biltegian.

i) Biltegia garbi eta txukun eduki du.

4.- Salgaien inbentarioak prestatzen parte hartzen du, eta izakinak kontrolatzeko oinarrizko eragiketak egiten ditu, biltegiak kontrolatzeko tresna informatikoen bitartez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biltegiari lotutako dokumentazio teknikoa deskribatu du.

b) Gutxieneko biltegiatzea hornitzaileen hornidura-denborarekin eta eskariarekin erlazionatu du.

c) Biltegiatze eta inbentario motak eta haien aldagaiak identifikatu ditu.

d) Biltegian dauden produktuen inbentarioa egin du, beharrezkoa denean gorabeheren parteak egin ditu, eta hornidurak berriz egiteko premiak eta stock-gabeziak jakinarazi ditu.

e) Biltegiatzea berriturik dagoela eta gutxieneko stocka badagoela ziurtatzeko erabiltzen diren mekanismoak zehaztu ditu.

f) Stockak berritzeko sistemarik hoberena identifikatu du biltegi motaren arabera.

g) Biltegiak kontrolatzeko aplikazio informatiko espezifikoak erabili ditu.

h) Biltegia kontrolatzeari lotutako informazioa prestatu du, modu ordenatu, egituratu, argi eta zehatzean, testu-prozesadoreak eta kalkulu-orriak erabiliz.

i) Biltegia kontrolatzeak merkataritza-banaketan eta produkzio-prozesuan duen garrantzia baloratu du.

5.- Eskabideak prestatzen ditu igortzeko, eta salgaien ezaugarriak, manipulazio-baldintzak eta kontserbazioa erlazionatzen ditu laneko aginduekin eta igorpen-agiriekin.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Salgaien edo produktuen enbalajeari eta etiketei buruzko araudia interpretatu du.

b) Enbalaje mota desberdinen ezaugarriak erlazionatu ditu produktuen eta salgaien ezaugarri fisiko eta teknikoekin, eta haiek manipulatzeko eta garraiatzeko baldintzekin.

c) Eskabide-agindua abiapuntu izanik, igorri beharreko salgaiak deskribatu ditu.

d) Egiatzatu du, biltegiako fitxak abiapuntu izanik, eskabideari erantzuteko behar adina salgai dagoela.

e) Salgaia igorpen-eremuan utzi arte biltegian egin beharreko mugimenduak eta manipulazio-ekipo egokiak deskribatu ditu.

f) Aplikazio informatikoak erabili ditu entrega-orriak betetzeko.

g) Salgaien irteerak erregistratu ditu biltegiako fitxetan eta dokumentazio teknikoan.

h) Etiketak sortu ditu, eta enbalajeon zein tokitan jarri behar diren zehaztu du, eta beste horrenbeste salgaiak babesteko seinaleekin.

i) Karga-aginduak interpretatu ditu, eta salgaiak garraiobidean kokatzeko tokia identifikatu du, haien ezaugarri fisikoen eta destinoaren arabera.

j) Erroreen aurrean erantzukizuna erakutsi du.

B) Edukiak:

1.- Salgaiak hartzea eta sarrerak kudeatzea

Garraiobideak.

Deskargak kontrolatzeko prozedurak.

Salgaien kontzeptua eta sailkapena.

Enbalaje motak.

Salgaiak hartzearekin lotzen diren agiriak.

Salgaien erregistroa.

2.- Salgaien etiketak eta kodeak

Kodetze-sistemak.

EAN 8, 13, 39, 128 kodeak.

Kodeak esleitzeko prozesua.

Etiketak: motak eta funtzioak.

Etiketak kontrolatzeko tresnak.

Errotuluak eta seinaleak enbalajeetan.

Trazabilitatea egiaztatzea.

Laneko arriskuen prebentzioko neurriak.

3.- Produktuak eta salgaiak biltegitratzea

Biltegi motak.

Biltegiaren eremuak.

Salgaien manipulaziorako ekipo mekanikoak.

Salgaiak kokatzeko arauak.

Salgaiak kokatzeko moduak.

Salgaien kontserbazioa eta mantentzea arautzen dituzten segurtasun- eta higiene-arloko arauak.

Segurtasuna eta prebentzioa biltegiko lan osagarrietan.

4.- Izakinak kontrolatzeko oinarritzko eragiketak

Biltegitratze-sistemak.

Stock motak.

Izakinen txandaketa.

Salgaiak berriz jartzeko sistemak.

Inbentarioa: xedea eta motak.

Inbentarioak egiteko prozesua.

Izakinak kontrolatzeko jarduera osagarrietan aplikazio informatikoak erabiltzea.

Larrialdietan jarduteko oinarritzko arauak.

5.- Eskaerak prestatzea eta salgaiak bidaltzea.

Eskaera-agindua.

Eskaerak jaso eta tratatzea.

Salgaiak igortzeko dokumentazio teknikoa.

Karga prestatzea.

Igortzeko etiketak eta enbalajea.

Lanbide-modulua: Haragia salmentarako prestatzea

Kodea: E630

Kurtsoa: 2

Iraupena: 96 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Zatiketa-gelaren eta hango ekipo eta baliabide osagarrien betekizunak identifikatzen ditu eta haiek garbitu, prestatu eta mantentzeko eragiketak egiten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Instalazio, ekipo eta makineriari buruzko baldintza orokorrak identifikatu ditu.

b) Zatiketa-gelen baldintza tekniko sanitarioak zehaztu ditu.

- c) Zatiketa-gelako ingurumen-baldintzak bereizi ditu.
- d) Garbitzeko, desinfektatzeko, intsektuak hiltzeko eta arratoiak hiltzeko sistema eta produktu egokiak aukeratu eta aplikatu ditu.
- e) Zatiketa-gelako makineriaren eta ekipoen osagaiak, ezaugarriak eta funtzionamendua deskribatu ditu.
- f) Makineriaren mantentze-beharrizanak ezagutu ditu, eta lehenengo mailakoak egin ditu.
- g) Zatiketa-makinak osatzen dituzten oinarritzko elementuak muntatu eta desmuntatu ditu.
- h) Ebakitzeko tresna eta elementuen baldintza egokienak sumatu ditu, eta egoera onean mantendu ditu.
- i) Zatitzeko lanabesak eta makineria erabiltzean segurtasun-neurriak aplikatu ditu.

2.- Kanalak hezurgabetu eta zatikatzen ditu, haragi-piezetatik xerrak eta txuletak atertzen ditu eta merkaturatzeko prestatu, eskatzen diren kalitatea eta higiena lortuz eta prozesuaren trazabilitatea eramanez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Behi-, zaldi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-azienden, hegaztien, untxien eta ehizakien kanalak merkaturatu aurkezteko moduak identifikatu ditu.
- b) Espezieen kanalen sailkapen komertziala interpretatu du.
- c) Behi-, zaldi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-azienden, hegaztien, untxien eta ehizakien zatikatzea osatzen duten faseak eta eragiketak ezaugarritu ditu.
- d) Pieza eta unitateak merkaturatzeko izan behar dituzten ezaugarriak ezagutu ditu.
- e) Lortutako pieza eta unitateak haien ezaugarri eta irizpide komertzialekin lotu ditu.
- f) Pieza edo unitateen ezaugarriak eta biltzeko, ontziratze eta etiketatzeko material eta teknikak erlazionatu ditu.
- g) Kanala laurdendu edo erdibitu du, ebakitzeko tresna eta ildo zuzenak aukeratu.
- h) Kanalak eta aurrealdeko eta atzealdeko laurdenak edo erdiak hezurgabetu eta zatikatu ditu, errendimendurik onena lortzeko egokiak diren tresnak, ebakitzeko moduak eta banaketa aukeratu.
- i) Haragi-piezetatik xerrak eta txuletak atera ditu, aprobetxamendurik onena eta merkataritza-eskakizunak bateragarri eginez.
- j) Lortutako pieza eta unitateak haien ezaugarri eta irizpide komertzialen arabera sailkatu ditu.
- k) Zatikatzeko eragiketak egitean, dagozkion higiena-neurriak aplikatu ditu.
- l) Biltzeko eta etiketatzeko materialak eta teknikak aukeratu ditu, pieza bakoitzarentzat egokiak direnak.
- m) Trazabilitatea egiteko beharrezkoak diren datuak hartu ditu.

3.- Barruki jangarriak merkaturatzeko edo haiei erabilera industrialia emateko prestaketa-teknikak aplikatu ditu, behar den kalitate eta higiena lortuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Behi-, zaldi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-azienden, hegaztien, untxien eta ehizakien barruki jangarriak merkaturatu aurkezteko moduak identifikatu ditu.
- b) Barrukiek merkaturatzeko izan behar dituzten zehaztapenak ezagutu ditu.
- c) Barrukien eta haien unitateen ezaugarriak eta biltzeko, ontziratze eta etiketatzeko material eta teknikak erlazionatu ditu.
- d) Barrukiak hezurgabetu eta zatikatu ditu.
- e) Lortutako unitateak haien ezaugarri eta irizpide komertzialen arabera sailkatu ditu.
- f) Prestatzeko eragiketak egitean, dagozkion higiena-neurriak aplikatu ditu.
- g) Aurkezteko eta etiketatzeko material eta teknika egokiak aukeratu ditu.

4.- Muskuluak eta beste animalia-ehun batzuk haragi eta barruki jangarri bihurtzeko prozesua eta

horrek lortutako produktuan eta identifikazioan daukan eragina aztertzen du, eta haragiaren ezaugarriak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Animalia batean dauden muskulu motak bereizi ditu.
- b) Animalia hil berrietan muskulu-ehunaren eta beste batzuen ezaugarri egokienak ezagutu ditu.
- c) Hildako animaliaaren muskuluan eta beste ehun jangarri batzuetan gertatzen diren prozesu eta aldaketa biokimikoak identifikatu ditu, eta haragiaren eta barrukien ezaugarri organoleptikoen agerpenarekin erlazionatu ditu.
- d) Eguraste-ganberetan izan behar diren ingurumen-baldintzak identifikatu ditu, haragia behar bezala heltzea lortzeko, bai eta kontrolerako parametroak ere.
- e) Behar bezala heldu edo prozesatu ez diren haragi eta barrukiek dituzten ezaugarriak ezagutu ditu, eta jatorrizko arrazoiak ondorioztatu ditu.
- f) Haragi freskoaren ezaugarri organoleptikoak deskribatu ditu, eta horien garapenean eragiten duten faktoreak zerrendatu ditu.
- g) pH-a haragiaren egoera sanitarioarekin eta freskotasan-mailarekin erlazionatu du.
- h) Ezaugarri organoleptikoak sumatu ditu.
- i) PH-aren neurketak egin ditu.
- j) Sumatutakoa eta neurketak kontrastatu ditu, eta kalitatea baloratu du.

5.- Haragi-piezen salmenta-prezioak kalkulatu ditu, eskandalloak eginez eta aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Harakintzan eskandallo kontzeptua eta haren erabilgarritasuna ezagutu ditu.
- b) Kanalaren salmenta-prezio orokorra kalkulatu du, errendimendu estandarretatik eta merkatu-erreferentzietatik abiatuta, pieza bakoitzaren prezioei dagokienez.
- c) Marjina komertzialak identifikatu eta baloratu ditu, erosketa-prezioa eta salmenta-prezio orokorra ezagututa.
- d) Kanala eskuratzeari edo ez eskuratzeari edo piezen salmenta-prezioak aldatzeari buruzko erabakia justifikatu du.
- e) Kanalaren errendimendu estandarrak benetan lortutakoekin kontrastatu ditu eta, hala badagokio, zuzendu egin ditu.
- f) Salmenten kontrol egokia egin du eta bezeroari behar bezalako arreta eman dio.

B) Edukiak:

1.- Zatiketa-gelen eta haragi-lantegiaren baldintza tekniko sanitarioak aplikatzea.

Ekipoak eta makineria. Deskribapena eta erabilgarritasunak.
 Baliabide eta instalazio osagarriak (beroa, hotza, ura, airea, energia elektrikoa sortzea).
 Baldintza tekniko sanitarioak.
 Ingurumen-baldintzak.
 Haragia prestatzeko lanabesak edo tresnak.
 Garbiketa orokorra.
 Garbitzeko, desinfektatzeko, eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko produktuak.
 Higiene pertsonaleko neurriak eta segurtasun-neurriak langile, lanabes eta makinerian.
 Makineriaren mantentze-lanak zatiketa-geletan eta lantegietan.

2.- Haragi-piezak prestatzea merkaturatzeko:

Kanalak zatikatzea. Zati komertzialak.
 Animalia handiak hezurgabetzea eta zatikatzea. Sailkapen komertziala.
 Animalia txikiak hezurgabetzea eta zatikatzea. Sailkapen komertziala.

Xerrak eta txuletak ateratzea. Hondarrak aprobetxatzea.
Biltzeko eta etiketatzeko materialak.
Piezak kontserbatzea. Eguraste- eta hotz-ganberak.

3.- Barruki jangarriak prestatzea merkaturatzeko

Barrukiak aurkezteko moduak haragi motaren arabera.
Barrukiek merkaturatzeko bete behar dituzten lege-zehaztapenak.
Haragia: definizioa eta ezaugarri organoleptikoak.
Muskulu-ehuna. Eraketa eta osaera. PH-a, kolorea, zaporea, beste batzuk.
Haragiaren egoera hil ondoren.

Haragi-desberdinen ezaugarriak: behi-, ardi-, ahuntz- eta txerri-aziendak, hegaztiak, untxiak eta ehizakiak.

Haragi eta errai motak, piezak eta unitateak. Sailkapena.
Beste ehun jangarri batzuk: koipeak, erraiak, barrukiak, tripak eta odola.
Haragia heltzeko prozesua. Ganberak.
Heltzean izandako alterazioak.
Osaera bromatologikoa. Deskribapena. Ura haragian.
Haragien kalitatearen balorazioa.

4.- Prezioa zehaztea eta haragi-produktuak merkaturatzea

Merkataritza-aurkezpena. Jendearentzako salmenta-postua.
Jendearentzako arreta. Salmenta-teknikak.
Eskandalloak. Definizioa eta erabilgarritasuna.
Salmenta-prezioa kalkulatzeko. Errendimendu estandarrak eta merkatu-erreferentziak.
Marjina komertzialak. Salmenta-aurreikuspena.
Salmenta-kontrola. Idatzoharrak eta zuzenketak.
Erakuslehoiak muntatzea.
Produkturik egokienak aukeratzea.
Etiketatzeko: etiketa motak, kokapena.
Ontziratzea-biltzea: araudia, materialak eta bilgarri eta ontzi motak.

Lanbide-modulua: Haragi-prestakinak
Kodea: E631
Kurtsoa: 2
Iraupena: 96 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Produktorako makineriaren eta ekipoen lehen mailako mantentze-prozedurak egiten ditu, eta haragiaren eratorriak elaboratzeko prozesuan erabiliko diren lehengaiak elaboratzeko alde aurreko eragiketak gauzatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Prozesuan erabiliko diren ekipo eta instalazioak martxan jarri ditu, eta lan-jarraibideetan adierazitako egiaztapenak eta zuzenketak egin ditu.

b) Hodiak, erretiluak, biltegiak, toberak eta gainontzeko ekipoak garbi eta hondakin, hondar edo jalkinik gabe daudela egiaztatzen ditu, eta, beharrezkoa balitz, garbitu eta desinfektatu egin ditu, ezarritako prozedurari jarraituz.

c) Haragi-merkataritza eta -industrian erabilitako garbiketako mailak eta kontzeptuak bereizi ditu, eta harategian ekipoen eta makineriaren lehen mailako mantentzea egiteko beharrezkoak diren eragiketak zehaztu ditu.

- d) Elaborazioan erabiliko diren lehengaien ezaugarriak zehaztu ditu, ezaugarri horiek eskatzen diren zehaztapenekin kontrastatuz.
- e) Lehengaien eta produktu osagarrien fluxuaren bidez beharrianak betetzen direla egiaztatu du, eta prozesuaren erritmora egokitu du, egon litezkeen desbideratzeak zuzenduz eta jakinaraziz.
- f) Eskuzko langileek erabiliko diren lehengaiak aukeratzeko eta prestatzeko egindako lana gainbegiratu du, eta erritmoa egokia dela eta manipulazioa lan-jarraibideen arabera dela egiaztatu du.
- g) Azpiproduktuak eta hondakinak jasotako jarraibideen arabera ezabatzen direla zaindu du, behar den unean, baliabide egokiekin eta ezarritako tokietara.
- h) Elaborazio-prozesua bukatu ondoren behar diren garbiketa-eragiketak egin direla egiaztatu du.

2.- Produktu freskoak formulazioaren arabera dosifikatzen eta nahasten ditu, eta, hala dagokionean, oratu eta hestebeteak egiten ditu, behar den kalitatea lortuz eta higie- eta segurtasun-baldintzak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haragi-masa eta -pasta finak elaboratzeko formulak interpretatu ditu, eta osagaiak ezagutu ditu, baita zein egoeratan gehitu behar diren, zer zeregin duten eta zeintzuk diren dosifikazio-marjinak ere.
- b) Dosifikatzeko eskuzko sistemak eta automatikoak identifikatu ditu, eta baita erlazionatutako balantza motak eta ekipoak ere.
- c) Nahasketa mota desberdinak bereizi ditu (oreak, emultsioak, gelak), eta bakoitzaren ezaugarriak eta jokaera azaldu ditu.
- d) Txorizoak, saltxitxak eta hanburgesak elaboratzeko erabilitako nahasketa, oratze, emultsionatze eta gelifikatze metodoak deskribatu ditu, produktu mota bakoitzarekin lotuz eta, kasu bakoitzean, behar diren ekipoak eta baldintzak adieraziz.
- e) Hestebeteak egiteko eta moldekatzeko harakintzan erabilitako teknikak deskribatu ditu, eta behar diren makinak eta baldintzak adierazi ditu.
- f) Osagai bakoitzaren beharrezko kantitatea kalkulatu du.
- g) Kantitateak pisatu eta dosifikatu ditu, onartutako tolerantzia-marjinekin, balantzak maneatuz edo dosifikazio-ekipoak erabiliz.
- h) Elaboratutako ore edo pasta fin bakoitzaren aurkezpena eta tamaina egiaztatu du.
- i) Dosifikatzeko eta nahasteko makinak aukeratu ditu, parametroak esleitu ditu eta trebetasunez erabili ditu.
- j) Produktuak manipulatzeko eta ekipoak maneatzeko higie eta segurtasuneko neurri espezifikoak aplikatu ditu.
- k) Egiten ari den nahasketaren ezaugarriak kontrastatu ditu (homogeneotasuna, fluidotasuna-biskositatea, plastikotasuna), haren zehaztapenekin, eta dosifikazioan edo nahasketa-baldintzetan egin beharreko egokitzapenak ondorioztatu ditu.

3.- Haragi-prestakin freskoak elaboratzeko erabilitako lehengaiak eta osagarriak, espeziak, gozagarriak eta gehigarriak ezaugarritzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haragiek izan behar dituzten ezaugarriak (pH-a, barneko tenperatura, hezetasuna, kolorea) ezagutu eta neurtu ditu.
- b) Harategiko eta urdaitegiko elaborazioetan erabilitako koipe mota desberdinek eta beste lehengai batzuek izan behar dituzten baldintzak deskribatu ditu.
- c) Hestebeteak egiteko heste motak, hesteen baldintzak eta egokitzapena identifikatu ditu.
- d) Elikagai-gehigarriak sailkatu ditu, eta haragi-produktuen mota desberdinetarako baimendutakoak bereizi ditu, bai eta haiek dosifikatzeko araudia ere.
- e) Gehigarrien jokaera deskribatu du, eta gehigarrien erabilerak dituen abantailak eta desabantailak baloratu ditu, eta erabiltzeko jarraibideak interpretatu.

f) Urdaitegian erabilitako gozagarriak eta espeziak zerrendatu ditu, eta bakoitzaren ezaugarriak, erabilerak eta baldintzak azaldu ditu, eta parte hartzen duten prozesuekin erlazionatu ditu.

g) Formulaziorako zehaztapenak interpretatu ditu, eta, kasu bakoitzean, prestaketa-baldintzak adierazi ditu.

h) Gehitzeko teknikak eta baldintzak deskribatu ditu, eta dagozkion murgiltze, injekzio edo dosifikazio ekipoekin eta produktu hartzaileekin erlazionatu ditu.

i) Tratatu beharreko bolumenaren eta eskatzen den kontzentrazioaren arabera behar diren kantitateak kalkulatu ditu, guztizkoak eta osagai bakoitzarenak.

j) Osagaiak gehitu eta nahastu ditu, adierazitako baldintzetan.

k) Gehitzeko ekipoak aukeratu eta trebetasunez erabili ditu.

l) Produktuak manipulatzeko eta ekipoak maneiatzeko higie eta segurtasuneko neurri espezifikoak aplikatu ditu.

m) Aplikatzeko baldintzak finkatu eta mantendu direla egiaztatu du.

4.- Haragiaren eratorri freskoak elaboratzeko teknikak aplikatzen ditu, eskatutako kalitatea eta higie lortuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabili beharreko lehengaiak eta osagarriak prestatu, pisatu eta dosifikatu ditu.

b) Osagai guztiak txikitu eta nahastu-oratu ditu, behar den indarrarekin eta behar den denboran eta tamainan.

c) Hesteak prestatu ditu, eta hesteak bete eta lotu edo gratatu egin ditu, eta, hala badagokio, moldekatu egin ditu.

d) Elaboratutako produktu freskoen akats eta alterazio nagusiak ezagutu ditu.

e) Lortutako haragi-produktuen pausatze-beratzea egiteko behar den denbora, tenperatura eta hezetasuna zehaztu ditu, pisuaren eta erabilitako prozesuaren arabera.

f) Haragia nahi den neurrian txikitze behar diren makina eta osagarriak aukeratu ditu.

g) Hozteko edo izozteko ganberak prestatu ditu (tenperatura, hezetasuna, aireztatzea, denborak).

h) Hozteko edo izozteko ganberetan kokatu ditu piezak edo produktu elaboratu freskoak, parametroak kontrolatuz lan-jarraibideetan zehaztutakoaren arabera.

i) Pieza eta haragi-elaboratu fresko hoztuen egoera gainbegiratu du aldian-aldian, eta izoztutako produktuen egoera zaindu du, behar den baldintzetan egon daitezen.

j) Ikusitako anomaliak zuzendu ditu, ahal den neurrian, eta prozesuaren gorabeherak erregistratu ditu.

5.- Egokitzapen eragiketak egin ditu, haragi-erotorri elaboratuak merkaturatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Haragi-produktuen etiketatze, ontziratze eta publizitateari buruzko araudia interpretatu du.

b) Produktuen etiketatze sartu beharreko informazio derrigorrezkoa eta osagarria bereizi eta azaldu du.

c) Etiketa mota desberdinak eta beste identifikazio-marka batzuk ezagutu ditu.

d) Haragiaren sektorean erabilitako ontzi motak eta ontzien ezaugarriak identifikatu ditu.

e) Ontziratze- eta biltzeko erabilitako metodo desberdinak deskribatu ditu.

f) Etiketak aukeratu, informazioa bete eta etiketatu egin du.

g) Ontziratze- eta biltzeko material eta metodorik egokiena aukeratu du, dagozkion eragiketak eginez.

6.- Arrisku-faktoreak eta -egoerak eta harakintzan eta haragi-industrian aplikatzekoak diren prebentzio- eta babes-neurriak aztertu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Haragi-industriako arrisku-faktore eta -egoerarik ohikoenak identifikatu ditu, eta ondorioak eta prebentzio- eta babes-neurriak ondorioztatu ditu.

b) Honako arlo hauei buruzko araudiaren eta planen alderdirik garrantzitsuenak interpretatu ditu: langilearen eta enpresaren eskubideak eta betebeharrak, eginkizunen eta erantzukizunen banaketa, prebentzio-neurriak, seinaleak, postu bakoitzerako arau espezifikoak, istripuetan eta larrialdietan izan beharreko jokabideak.

c) Arriskuko edo larrialdiko eremu edo egoerak adierazten dituzten seinaleen helburua, ezaugarriak eta sinbologia ezagutu ditu.

Norberaren babeserako jantzien eta elementuen propietateak zerrendatu ditu, eta nola erabili azaldu du.

e) Harakintzan eta haragi-industrian erabilitako ekipoen segurtasuneko baldintzak eta gailu orokorrak deskribatu ditu.

7.- Ontziratze, etiketatze eta enbalatzeko ontziak eta materialak ezaugarritzen ditu, eta ezaugarriak erabilera-baldintzekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Elikagaien industrian gehien erabiltzen diren ontziak eta ontziratze materialak sailkatu ditu.

b) Ontzien eta ontziratze materialen ezaugarriak eta erabilera-baldintzak deskribatu ditu.

c) Elikagaien materialen eta ontzien artean dauden bateraezintasunak adierazi ditu.

d) Etiketatze materialak identifikatu ditu, eta ontzi eta produkturik egokienekin lotu ditu.

e) Elikagaien industrian erabilitako enbalaje-materialak ezagutu eta sailkatu ditu.

f) Enbalaje-formatu desberdinak identifikatu ditu, eta haien erabilgarritasuna justifikatu.

B) Edukiak:

1.- Haragi-elaborazioetarako makineriaren eta ekipoen mantentze-lanak.

Garbitasun-mailak establezimendu minoristetan eta haragi-industrian.

Garbiketa-produktuak eta lehen mailako tratamenduak.

Lehen mailako mantentze-eragiketarako haragi-industriako ekipo eta makinerian.

Instalazio osagarrien kontrola.

Produktu elaboratu freskoak hozteko edo izozteko ganberen kontrola.

2.- Haragi-prestakinak elaboratzeko lehengaiak eta osagarriak.

Haragia, hartzailearen eta balorazioaren arabera.

Urdaitegian erabilitako barruki jangarriak.

Lehengaiak aukeratzea eta alde aurretik egokitzea.

Koipeak: haragi-prestakinetarako erabilgarritasuna eta kontserbazioa.

Koipearen ezaugarriak eta eragina urdaitegiko produktuetan.

Haragiaren, koipeen eta barrukien alde aurreko tratamenduak: alde aurreko gazitzea, hoztea eta alde aurreko gozitzeak.

Hesteak: funtzioa, propietateak, sailkapena (naturalak eta artifizialak, motak eta ezaugarriak).

Beste materia osagarri batzuk: kordelak, grapak, zintak, olioak:

3.- Gozagarriak, espeziak eta gehigarriak

Gehigarriak: kontzeptua eta sailkapen orokorra; araudia eta urdaigintzan daukan erabilera: zerrenda positiboak, dosiak; eragina, propietateak eta toxikotasuna.

Espeziak: espezia mota erabilienak, ezaugarriak, funtzioa; maneiua eta kontserbazioa.

Gozagarriak: gozagarriak erabilienean zerrenda; propietateak eta eragina.

4.- Haragi-prestakin freskoak elaboratzea. Erabili beharreko makina eta ekipoak

Ezaugarriak eta araudia: definizioa, motak, prestakinen sailkapena: saltxitxak, txorizo freskoak, hanburgesak, haragi-bolak; formulazioa; elaboratzeko prozesua.

Txikitzea eta oratzea: oinarriak; behar ez bezala txikitzeak eragindako akatsak eta alterazioak.

Hestebeteak egitea: kontzeptua eta teknikak, parametroak; hesteak behar ez bezala betetzeak eragindako akatsak eta alterazioak.

Lotzea edo grapatzea: kordelez, grapen erabilera; teknikak.

Hanburgesearako oreen dosifikazioa.

Gehigarri, espezia eta gozagarrien gaineko ezagutzak, hanburgesak eta haragi-bolak elaboratzeko orduan.

Haragi-produktu freskoak beratzea.

Hotzean edo izoztuta gorde daitezkeen prestakin freskoak. Motak eta ezaugarriak.

Makineria eta ekipoak (janaria txikitzeo makina, oragailua, hestebeteak egiteko makina, egosteko galdarak edo labeak, ganbera klimatikoak, ke-hauspoak, lotzaileak, injektoreak).

Makineriaren eta ekipoen sailkapena eta aplikazioak.

Osaera eta elementuen muntaketa eta desmuntaketa.

Funtzionamendua, kontrol-gailuak.

Mantentze-eragiketak.

Maneiuak, segurtasun-neurriak.

Elementu osagarriak: doitasun-balantzak, dosifikatzeko tresnak: ezaugarriak, maneiuak eta mantentze-lanak.

Ebakitzeko lanabesak, kakoak, beste erreminta batzuk: erabilera eta segurtasuna.

Ontziak, bainuontziak, injektoreak, moldeak.

Garraiatzeko elementuak.

5.- Haragi-produktuak etiketatzea eta identifikatzea.

Etiketak eta beste osagarri batzuk.

Etiketatzeari buruzko araudia: sartu beharreko informazioa.

Etiketa motak, kokapena.

Beste marka eta seinale batzuk, kodeak.

Paketeak osatzeko teknikak. Multzokatzea, erretiluetan jartzea, erretraktatzea.

Saltzeko erakusgai jartzea.

6.- Haragi-prestakinek elaboratzeko baldintza tekniko sanitarioak

Urdaitegia: kontzeptua eta desberdintasunak harategiaren, saltxitxa-dendaren, urdaitegiaren eta haragi-industriaren artean. Araudi erregulatuak.

Lantegi industrialak: instalazioen, makineriaren eta ekipoen betekizunak; baldintza higieniko-sanitarioak eta ingurumen-baldintzak; garbitzeko eta desinfektatzeko metodo espezifikoak, nola gauzatu; higiene-neurriak manipulatzeko; arrisku-faktoreak eta -egoerak eta araudia; norberaren babeserako eta prebentziorako neurriak; larrialdi-egoerak.

7.- Haragia ontziratzea

Ontzia: materialak, propietateak, kalitateak, bateraezintasunak.

Sailkapena, formatuak, izendapenak, erabilgarritasunak.

Ixteko elementuak.

Kontserbazioa eta biltegiratzea.

Lanbide-modulua: Produktu freskoak salmentarako manipulatzeko

Kodea: E632

Kurtsoa: 2

Iraupena: 120 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Arraina edo mariskoa egokitzen du merkaturatzeko edo erabilera industrialia emateko, elikagaien kalitate eta segurtasun arauak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arraina, mariskoa eta horietatik eratorritako produktuak identifikatu eta sailkatu ditu, horretarako jasotako jarraibideen arabera.
- b) Elikagaien banaketarako gunean erabilitako ekipo eta instalazioak garbitzeko eta mantentzeko zereginak egin ditu.
- c) Erakustegiak edo mostradoreak egokitu ditu, jendaurrean erakusteko, baldintza higieniko-sanitario eta estetiko onenetan jarritz.
- d) Arraina edo mariskoa jendeari saltzeko prestatu du, ebakiak eginez, tripak kenduz eta produktuak garbituz.
- e) Produktua ontziratu, etiketatu eta errotulatu du jendeari emateko.

2.- Haragia egokitzen du merkaturatzeko edo erabilera industrialia emateko, elikagaien kalitate eta segurtasuneko araei jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haragia identifikatu eta sailkatu du, horretarako jasotako jarraibideen arabera.
- b) Elikagaien banaketarako gunean erabilitako ekipo eta instalazioak garbitzeko eta mantentzeko zereginak egin ditu.
- c) Erakustegia, mostradorea edo beira-arasa egokitu ditu, jendaurrean erakusteko, baldintza higieniko-sanitario eta estetiko onenetan jarritz.
- d) Haragia jendeari saltzeko prestatu du, ebakiak, eginez, xerrak ateraz eta barrukiak bereiziz.
- e) Produktua ontziratu, etiketatu eta errotulatu du jendeari emateko.

3.- Urdaitegiko produktuak eta haragiaren eratorriak egokitzen ditu merkaturatzeko edo erabilera industrialia emateko, elikagaien kalitate eta segurtasuneko araei jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Urdaitegiko produktuak eta haragiaren eratorriak identifikatu eta sailkatu ditu, horretarako jasotako jarraibideen arabera.
- b) Elikagaien banaketarako gunean erabilitako ekipo eta instalazioak garbitzeko eta mantentzeko zereginak egin ditu.
- c) Erakustegia, mostradorea edo beira-arasa egokitu ditu, jendaurrean erakusteko, baldintza higieniko-sanitario eta estetiko onenetan jarritz.
- d) Urdaitegiko produktuak eta haragiaren eratorriak jendeari saltzeko prestatu ditu, ebakiak eginez.
- e) Produktua ontziratu, etiketatu eta errotulatu du jendeari emateko.

4.- Fruta eta barazki freskoak egokitzen ditu merkaturatzeko edo erabilera industrialia emateko, elikagaien kalitate eta segurtasuneko araei jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Fruta eta barazki freskoak identifikatu eta sailkatu ditu, horretarako jasotako jarraibideen arabera.
- b) Elikagaien banaketarako gunean erabilitako ekipo eta instalazioak garbitzeko eta mantentzeko zereginak egin ditu.
- c) Erakustegiak edo mostradoreak egokitu ditu, jendaurrean erakusteko, baldintza higieniko-sanitario eta estetiko onenetan jarritz.
- d) Fruta eta barazkiak prestatu ditu jendeari saltzeko.

e) Produktua ontziratatu, etiketatu eta errotulatu du jendeari emateko edo autozerbitzurako.

B) Edukiak:

1.- Arrandegia

Arraina eta eratorriak.

Arrantzako produktuen oinarrizko sailkapena.

Arrainak, moluskuak eta krustazeoak giza elikaduran.

Arraina kontserbatzeko sistemak.

Arrantzako produktuen atal komertzialak.

Arrandegiko ekipo eta lanabesak: ebakitzeko, burua kentzeko, tripa kentzeko edo garbitzeko elementuak; garbitzeko eta gazitzeko bainuontziak eta tinak; sikatzeko-ketzeko lurrun-andelak eta estufak; hotzean gordetzeko ganberak eta armairuak; izozkailu horizontalak; produktu kozinatuen prestatzeko ekipoak; ontziratzeke, zigilatzeke eta erretraktilatzeke makinak; ekipo osagarriak.

Arrainaren araudi tekniko sanitarioa.

Ura, ezaugarriak.

Piezak prestatzea.

Erremintak maneiatzea.

Produktu fresko eta elaboratuen produktu izoztuak elaboratzea.

Desizoztea, metodoak eta eraginak.

Kontserbazioa, hoztea, erregulazioa eta kontrol sanitarioa.

Arrainak egokitzea eta merkaturatzea salmentarako establezimenduetan: arrainak eta mariskoak ontziratatu eta egokitzeari buruzko araudia; ontzien, bilgarrien, etiketen eta errotuluen sailkapena; produktuak etiketatzea, sailkatzea eta aurkeztea; arrandegietan ontziratzea-biltzea; ekipoak maneiatzea; erakustegiak, mostradoreak eta beira-arasak prestatzea; hondakinak bildu eta ezabatzea.

2.- Harategia

Ekipoak eta makineria. Deskribapena eta erabilgarritasunak.

Baliabide eta instalazio osagarriak (beroa, hotza, ura, airea, energia elektrikoa sortzea).

Baldintza tekniko sanitarioak.

Ingurumen-baldintzak.

Haragia prestatzeko lanabesak edo tresnak.

Garbiketa orokorra. Garbitzeko, desinfektatzeko, eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko produktuak.

Higiene pertsonaleko neurriak eta segurtasun-neurriak langile, lanabes eta makinerian.

Makineriaren mantentze-lanak zatiketa-geletan eta lantegietan.

Kanalak zatikatzea. Zati komertzialak.

Animalia handiak hezurgabetzea eta zatikatzea. Sailkapen komertziala.

Animalia txikiak hezurgabetzea eta zatikatzea. Sailkapen komertziala.

Xerrak eta txuletak ateratzea. Hondarrak aprobetxatzea.

Biltzeko eta etiketatzeke materialak.

Piezak kontserbatzea. Eguraste- eta hotz-ganberak.

3.- Urdaitegia

Produktu elaboratu freskoak hozteke edo izozteke ganberen kontrola.

Urdaitegia: kontzeptua eta desberdintasunak harategiaren, saltxitxa-dendaren, urdaitegiaren eta haragi-industriaren artean. Araudi erregulatzaila.

Etiketak eta beste osagarri batzuk.

Etiketatzeari buruzko araudia: sartu beharreko informazioa.

Etiketa motak, kokapena.

Beste marka eta seinale batzuk, kodeak.

Paketeak osatzeko teknikak. Multzokatzea, erretiluetan jartzea, erretraktilatzea.

Saltzeko erakusgai jartzea.

Haragi-produktuak ontziratzea. Ontziratzea: materialak, propietateak, kalitateak, bateraezintasunak; sailkapena, formatuak, izendapenak, erabilgarritasunak; ixteko elementuak; kontserbazioa eta biltegitratzea.

4.- Fruta eta barazki freskoak

Fruta eta barazkien tipologia eta sailkapena.

Produktuen jatorri geografikoa. Urte-sasoiko fruta eta barazkiak.

Jatorri-deitura.

Produktu ekologikoa.

Produktu freskoen erakusketa sailkatzea eta egokitzea.

Jendeari saltzeko produktuak ontziratzea, etiketatzea eta trazatzea.

Lanbide-modulua: Saltokiko eta gunee osagarrietako eragiketak

Kodea: E633

Kurtsoa: 2

Iraupena: 72 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Arreta egiten die balizko bezeroei, eta komunikazio-teknika desberdinak ezagutzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Balizko bezeroaren portaera aztertu du.
- b) Jarrera eta solasa egoki moldatu ditu abiapuntuko egoerara.
- c) Balizko bezeroari buruzko beharrezko informazioa lortu du.
- d) Komunikazioa bultzatu du, teknika eta jarrera egokiak erabiliz haren garapenerako.
- e) Solasaldian aritu da, formulak, merkataritzako hiztegia eta komunikazio-loturak erabilia (argibideak eskatzea, informazioa eskatzea, norbaiti errepikatze eskatzea eta beste hainbat).
- f) Erraz ebazteko moduko galdera bati erantzun dio, merkataritzako lexiko egokia erabiliz.
- g) Aldez aurretik ezarritako gai bati buruz ahoz jardun du talde baten aurrean edo bi solaskidek parte hartzen duten komunikazio-harreman batean.
- h) Besteekiko jarrera adostaile eta sentibera izan du, amultsu eta adeitsu agertuz.
- i) Argi eman du informazioa, modu txukunean, egituratuan eta zehatzean.

2.- Kobratzeko eragiketak eta kobratzearekin lotutako beste batzuk egiten ditu, saltokiko terminalean.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktuen iraungipen eta kontserbazio egoera kontrolatu du.
- b) Produktuak kobratu ditu, kobratzeko eskura dauden modalitate desberdinen bidez, eta dagozkion sekzioetan idatziz jaso du.
- c) Kobratutako produktuei dagozkien deskontuak eta sustapenak aplikatu ditu eta haien idatzoharrak egin ditu.
- d) Bezeroak eskatuta edo arduradunak edo nagusiak eskatuta, produktuak itzultzeko eragiketak egin ditu.
- e) Barra-kodearen irakurgailua eta kreditu-txartelen irakurgailua maneiatu ditu.
- f) Eragiketei dagozkien tiketak eta ordainagiriak egin ditu, eta bezeroari eman dizkio edo artxibatze gorde ditu.

3.- Beste era bateko eragiketak egiten ditu saltokiko terminalean eta elikagaien saltegian

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kutzako azken zenbaketa egin du dagokion inprimakian, eta erregistratutako eragiketen xehetasunak islatu ditu eta bertan sartutako kontabilitateko idatzoharren gaineko erantzukizuna hartu du.
- b) Biltegiatutako produktuen erregistroa egin du, bai eta saltokiko terminalaren sinkronia ere stockaren datu-basearekin.
- c) Merkataritza-gunearen sekzio bakoitzeko mantentze-lanak egin ditu (prezioak eguneratu, kartelistika, datuak biltzea, etab.).
- d) Bezeroek eskatutako produktuen eta egindako erreklamazioen berri eman die arduradunei, zeinek gama eta emandako zerbitzua hobe baitezakete.
- e) Sekzio bakoitzerako definitutako edo agintariak definitutako kalitate-aldagaien kontrola egin du.
- f) Galera ezezagunari buruz ezarritako kontrol-arauak bete ditu.
- g) Aldian-aldiko inbentarioa egiten lagundu du.

4.-Zerbitzuaren aukeren berri ematen dio balizko bezeroari, eta ikuspuntu teknikitik arrazoitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Publiko mota desberdinak aztertu ditu.
- b) Bezeroak eta hornitzaileak bereizi ditu, eta horiek publikotik oro har.
- c) Merkataritzako komunikazioaren oinarritzko terminologia ezagutu du.
- d) Informazioaren eta publizitatearen arteko bereizketa egin du.
- e) Erantzunak egokitu ditu jendearen galderen arabera.
- f) Bezeroari zerbitzuaren ezaugarrien berri eman dio, batez ere espero daitezkeen kalitateei dagokienez.
- g) Bezeroa aukera gomendagarrienaz aholkatu du, aukera bat baino gehiago daudenean, eta bakoitzaren ezaugarriei eta akaberei buruzko informazioa eman dio.
- h) Bezeroari eskatu dio egin duen hautaketaren berri emateko.

B) Edukiak:

1.- Bezeroarentzako arreta

Komunikazio-prozesua. Esku hartzen duten agenteak eta elementuak.
 Bezeroekin komunikatzeko kanalak.
 Komunikatzeko oztopoak eta zailtasunak.
 Ahozko komunikazioa: ahozko mezuak igortzea eta jasotzea.
 Motibazioa, frustrazioa eta babes-mekanismoak. Komunikazio ez-ahozkoa.
 Enpatia eta harmena.

2.- Saltokiko terminala

Oinarritzko funtzionamendua.
 Kobratzeko eragiketen eta kobratzearekin lotutako eragiketen kodifikazioa eta tipologia.
 Deskontuak eta sustapenak produktuen salmentan.
 Itzultzeak.
 Barra-kodeak. Irakurgailuak eta kodea teklatu bidez sartzea.
 Kreditu-txartelak eta antzekoak irakurtzeko terminala.
 Saltokiko eragiketen agiri bidezko erregistroa. Tiketak, ordainagiriak, fakturak.

3.- Eragiketa osagarriak elikagaien banaketarako merkataritza-gunear

Kutxaren zenbaketa eta egindako eragiketen erregistroa.

Stockaren kontrola.

Kartelistika.

Kexa eta iradokizunen tratamendua. Legezko betebeharrak eta bete beharreko protokoloak.

Kalitate-prozesuak eta aldagaien kontrola.

Produktuen inbentarioa.

4.- Bezeroarentzako informazioa

Eginkizunak, helburuak eta bezeroaren eta profesionalaren arteko harremana.

Bezero motak eta haien harremana zerbitzugintzarekin.

Banan-banako harrera, konfiantzaren oinarri gisa, zerbitzua eskaintzerakoan.

Bezeroaren beharrak eta gustuak, bai eta haiek asetzeko irizpideak ere.

Bezeroak leial egitea.

Bezeroen kexak eta haien trataera.

Jasotako gaia sailkatu ahal izateko identifikatu behar diren funtsezko parametroak.

Haiek jasotzeko teknikak.

Zerbitzuak emateari lotutako oinarrizko dokumentazioa.

Lanbide-modulua: Zientzia aplikatuak I.

Kodea: 3009.

Kurtoa: 1

Iraupena: 165 ordu.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.- Estrategia desberdinak erabiltzen ditu zientziarekin eta matematikarekin erlazionaturiko ohiko problema errazak konpontzeko, metodo zientifikoaren faseak aplikatuta eta irmotasuna, segurtasuna eta autonomia erakutsita soluzioak bilatzean.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hipotesi errazak proposatu ditu, zuzeneko behaketetan edo hainbat bidetatik bildutako zeharkako behaketetan oinarrituta.

b) Hipotesiak aztertu, eta bere azalpenarekiko lehen hurbilketa egin du.

c) Problema ebazteko estrategiarik egokiena erabili du.

d) Zer urrats eman dituen eta zer ondorio atera dituen azaldu du.

e) Egindako hipotesiak egiaztatu edo gezurtatu ditu, eta frogen bidez defendatu du bere jarrera hori.

f) Irmotasunez eta sormena baliatuta jokatu du eragozpenak gainditzeko prozesuan, eta bide alternatiboak topatu ditu bere kabuz.

g) Talde-lanean jardun du, elkar lagunduz, eta gatazkak konpontzeko trebetasunak badituela azaldu du.

h) Ezagutza zientifiko eta matematikoak baliatu ditu, fenomeno natural garrantzitsuenak interpretatzeko.

i) Datu eta informazioak bilatu, bildu eta antolatzeko teknikak baliatu ditu, eremu zientifiko eta matematikoko problemak ebazteko.

j) IKTak erabili ditu, informazioa bilatzeko.

k) Zuzen adierazi ditu mezu zientifiko eta matematikoak.

l) Behar bezala erabili ditu hiztegia eta esamolde espezifikoak, baliabide grafikoak eta sinbologia.

m) Jarrera kritikoa izan du lortutako emaitzei eta jarraitutako prozesuari dagokienez.

n) Baliozkotasuna eta koherentzia egiaztatzeko hainbat estrategia baliatu ditu.

ñ) Bere ikaskuntza autoerregulatzen du estrategia eta tresnak baliatu ditu.

2.- Gidoi bati jarraikiz, ikerketa eta laborategiko praktika errazak egiten ditu; horretarako, hainbat teknika aplikatzen ditu, materiala behar bezala erabili, magnitude egokiak neurtu eta emaitzak interpretatu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laborategiko oinarrizko materialaren zerrenda egin du, izan ditzakeen aplikazioak ere jasota.
- b) Laborategiko produktu eta tresnak behar bezala manipulatu ditu.
- c) Magnitudeak neurtu ditu, eta dagozkien unitatetan adierazi.
- d) Egin behar duen teknika esperimental bakoitza identifikatu du.
- e) Egin behar duen teknika esperimental bakoitzean, kontuan izan ditu higie- eta segurtasun-baldintzak.
- f) Lan esperimentalean segurtasunaren oinarrizko arauak onartu eta bete ditu, eta erabili dituen tresnak eta materiala zaindu ditu.
- g) Hipotesi erraz eta egiaztagarriak egin ditu, zuzeneko behaketetan edo hainbat bidetatik bildutako zeharkako behaketetan oinarrituta.
- h) Hipotesiak aztertu ditu, eta bere azalpenarekiko lehen hurbilketa egin du.
- i) Metodo eta prozedura esperimental erraz eta askotarikoak planifikatu ditu hipotesia gezurtatzeko edo egiaztatzeko.
- j) Informazioa biltzeko hainbat teknika baliatu ditu, lanaren edo ikerketaren helburu eta xedeak aintzat hartuta.
- k) Antolatu eta interpretatu egin ditu datu esperimentalak, hainbat baliabideren laguntzarekin.
- l) Azalpen arrazoituak eman ditu, hipotesia berresteko edo gezurtatzeko asmoz.
- m) Ikerketaren emaitzen berri eman du, eta txostenak egin ditu hainbat baliabide eta euskarri analogiko eta/edo digital baliatuta.
- n) Lan zientifikoa antolatu du, ordenari eta zehaztasunari eutsita.
- ñ) Informazioa hainbat formatutan bilatu, kontsultatu eta erabili du.
- o) Egoki erabili du hiztegi zientifikoa.

3.- Materiak naturan izaten dituen forma guztiak aintzat hartuta, materiaren funtsezko propietateak identifikatzen eta deskribatzen ditu, magnitude fisikoak eta oinarrizko unitateak sistema metriko hamartarrean erabilita.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Materiaren propietateak deskribatu ditu.
- b) Luzeraren, masaren eta edukieraren unitate-aldaketak egin ditu.
- c) Bolumenaren eta edukieraren unitateen arteko baliokidetasuna identifikatu du.
- d) Eguneroko egoeretan neurketak egin ditu, eta notazio zientifikoaren bitartez adierazi du emaitza, Nazioarteko Sistemako unitateetan.
- e) Materiaren propietate orokorrak eta propietate bereziak bereizi ditu, eta propietate berezien bitartez substantziak identifikatu ditu.
- f) Materiak izan ditzakeen agregazio-egoerak identifikatu ditu.
- g) Materiaren egoera-aldaketak identifikatu eta izendatu ditu.
- h) Eredu zinetiko-molekularra erabili du egoera-aldaketak azaltzeko.
- i) Substantzia baten agregazio-egoerak zeintzuk diren bereizi du, fusio- eta irakite-tenperatura jakinda.
- j) Irakitearen eta lurrunketaren arteko aldeak zehaztu ditu, adibide errazen bitartez.

4.- Nahaste sinpleen osagaiak bereizteko metodo egokiena erabiltzen du, nahastearen oinarrian dagoen prozesu fisiko edo kimikoarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Adibide errazen bitartez, sistema material homogeenak eta heterogeenak identifikatu ditu.

- b) Substantzia puruak eta nahasteak zer diren identifikatu eta deskribatu du.
